

**INDARKERIA MATXISTAK
GASTEIZEN UTZI DITUEN
EMAKUME BIKTIMEN MEMORIA
BERRESKURATZEKO PROIEKTUA**



Argitalpena: Vitoria-Gasteizko Udala

Alkatetzaren eta Erakundeekiko Harremanen Saila. Berdintasunerako Zerbitzua.

www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

Egilea: María Díaz de Argote Horcajada. Enplegurako 2018ko Eskualde Plana

Itzultzailea: Alaitz Andreu Eizaguirre

Maketazioa eta diseinua: Habemus Estudio

Data: 2019ko maiatza



Hurrengo edukiak creative Commons Onarpen – berdinPartekatu (by-sa) lizentzian daude, beraz, obratik sortu daitezkeen lanak edo obra bera ere modu komertzialean erabili daitezke. Horien distribuzioa orijinala erregulatzen duen lizentzia beraren arabera egin behar da. <https://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/es>

INDARKERIA MATXISTAK

GASTEIZEN UTZI DITUEN

EMAKUME BIKTIMEN MEMORIA

BERRESKURATZEKO PROIEKTUA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Gero eta justuagoa eta berdinzaleagoa den gizartea sortzeko xedez egunero-egunero lanean aritzen diren Gasteizko kolektiboetako eta antolakundeetako hainbat emakumek parte hartu dute dokumentu hau egiteko orduan.

Eskerrik asko guztioi.

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	9
2. Ikuspegia eta erreferentziazko esparrua	13
3. Esparru arautzailea. Zenbait zertzelada	17
4. Xedeak	21
5. Metodologia	23
6. Gasteizko indarkeria matxistaren errealitatea	27
7. Erreparazioari, aitortzari eta memoriari buruzko diagnostikoa, emakumeen ahotsetatik abiatuta	35
Eranskinak	73



1. AURKEZPENA

Dokumentu hau HARA! Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Planaren esparruan kokatzen da, indarkeriaren biktimen memoria berreskuratzeko eta, horrela, biktimen erreparazioari laguntzeko prozesu kolektiboa finkatu behar dela jasotzen baitu «indarkeria matxistarik gabeko hiria» ildo estrategikoan.

LGTBI pertsonen kontra ezartzen den indarkeriak eta emakumeen kontrakoak diskriminazio-iturri berbera (matxismoa) badute ere eta diskriminazio-iturri hori aztertzea ahalbidetzen duten faktore komunak badauzkate ere, proiektu honek emakumeen aurka emakume izate hutsagatik ezartzen den indarkeriari helduko dio; betiere, gaur egungo esparru arautzailea eta juridikoa nahiz mugimendu feministak eta emakumeen taldeek burututako lan-prozesuak kontuan hartuta. Hala ere, dokumentuan sexu- eta genero-aniztasuna aipatuko dira han-hemen, baita sexu-joera eta genero-identitatea aipatu ere, proiektua kokatzeko ezinbesteko faktoreak direla balioesten baitugu.

Proiektu honekin, bada, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen aitortzaren eta erreparazioarako eskubidearen arloan ibilbide-orri bat identifikatzeko tresna eman nahi zaio Gasteizko Udalari¹. Horretarako, bloke hauek banatu dira:

Gure inguru hurbileneko indarkeria matxistari buruzko datu ofizialen azterketa kuantitatiboa. Kontuan izan behar dugu datuek errealitatearen zati bat baino ez dutela erakusten; hau da, erakundeek eta bestelako sistema ofizialek ezagutzen dutena bakarrik islatzen dutela. Hortaz, ez dute errealitatearen erradiografia osoa egiten, eta batez ere botere publikoek beren gain hartu beharreko erronka da hori.


Indarkeria matxistari buruzko datu nagusiak biltze aldera bigarren mailako iturrietatik jaso dugun informazioa aztertzea ez ezik, biktimen memoria berreskuratzeko prozesu kolektibo bat diseinatzeko oinarriak identifikatzea ere bada lan honen xedea, egitari, justiziari eta erreparazioari bide eman nahi bazaie, kaltea errepikatu

1 Ikusi Hara! Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Planaren (2018-2021) 57. orrialdea. Dokumentu honetan, politika publikoen esparruan eskubideak, zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko behar den kategoriatzat hartzen da biktima kontzeptua. Kontzeptu horren inguruan eztabaida badago ere, biktima kontzeptuarekin, besteak beste, bigarren aldiz biktimizatzen dela, estigma sortzen dela eta subjektu aktiboaren kategoriaren aurrean pasibotasuna azpimarratzen dela pentsa baitaiteke, dokumentu honetan erabiltzen den definizioak ikuspegi feminista, ahalduztailea eta giza eskubideen ingurukoa dauka, eta eskubidedun subjektutzat nahiz indarkeriatik irteteko, erreuperatzeko eta erreparazioa egiteko prozesuan beren bizitzaren protagonistatzat jotzen dira indarkeria matxista jasan duten edo jasaten ari diren emakumeak.

ez dadin. Horri begira, Gasteizko talde eta elkarte feministetako emakumeek eta hirugarren sektorean berdintasunaren alde lan egiten duten emakumeek edota erakundeek parte hartu dute, eta gai horien inguruko diskurtso kolektiboa eratu da horrela. Aitortzari, erreparazioari eta memoriari buruz hausnartzeko orduan bestela izan ezin zitekeenez, ezinbestekoa da indarkeria matxistatik bizirik irten diren emakumeak erdigunean jartzea. Bada, emakume batzuen lekukotzak ere jasotutako, elkarrizketa pertsonalen bidez.

Horrela, proiektuan parte hartu dutenei esker hautemandako premietatik abiatuko den prozesu kolektibo baterantz aurrera egiteko abiapuntua izan ahalko da memoria berreskuratzeko arloan eta erreparazioaren arloan jasotako guztia.

Azken batean, askotariko eremuetan egiten ari den lana oinarritzat hartuta, indarkeria matxistak Gasteizen utzi dituen emakume biktimen memoriaren berreskurapenean eta erreparaziorako eskubidean aurrera egiteko proposamen kolektibo baterako oinarrietara bilduko du gogoia txosten honek.



2. IKUSPEGIA ETA ERREFERENTZIAZKO ESPARRUA

Gero eta ikerketa eta azterlan² gehiagok ondorioztatzen dute **indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen nahiz LGTBI pertsonen ahotsak sartu behar direla erreparazio-prozesuetara**, bai kalitateko arreta osoa bermatu nahi bada, bai biktimak prozesu horien agente nagusitzat eta eskubide osoko subjektutzat hartuko dituen eredu baterantz jo nahi badugu. Mugimendu feministak eta LGTBI mugimenduak historikoki aldarrikatu izan dituzte eskubideok, eta, borroka horri esker, gaur egungo agenda publikora sartu dira.

Horrenbestez, proiektu honek aitortza egin nahi dio borroka feministari, nekazina baita nahiz eta indarkeria matxista etengabe berrasmutzen den, adierazpen sotilenetatik hasi eta zakarrenetaraino iritsita. Eta, hain justu ere, eremu horretantxe aurki dezakegu borroka feministaren ekarpen handienetako bat. Emakumeen aurkako indarkeriari buruz egin den ikerketa handienetik³ ondorioztatzen denez (2012an argitaratu zen, eta 70 herrialde bildu zituen), beharrezkoagoa da mugimendu feministak mobilizatzea nazioak aberastea edo alderdi politikoaren eragina areagotzea baino, indarkeria matxista desagerrarazteko bidean. Hain da horrela, ezen mugimendu feministari esker lortu baitira oinarritzko eskubideak (adibidez, sufragio unibertsala edo prestakuntzarako eta enplegurako sarbidea), emakumeei ukatu izan zaizkien eta ukatzen zaizkien eremuak konkistatu dira, eta zuzenean eragiten duten arazoaren ikusgarritasuna handitu da; adibidez, indarkeria matxistarena. Zentzu horretan, gaiaren inguruko legeak eta politika publikoak garatu ahal izan dira, baina mugimendu feministak etengabe berrikusten ditu, hobetzeko asmoz. Gure inguru hurbileneko adibide modura, Gasteizko mugimendu feministak⁴ Udalean aurkeztu zuen zentsura-mozioa gogoratu behar dugu, zeina aho batez onartu baitzen. Bertan, gure hiriko indarkeria matxistari buruzko zenbait kontu aldarrikatu ziren. Bada, honako hauek nabarmendu ditzakegu: indarkeria matxistaren terminoa zabaltzea, prebentzio-arloko aurrekontuei eustea, jarduteko eta erantzuteko protokoloak egitea (jai-eremuei arreta berezia emanez), LGTBI pertsonen eskubideen gaineko

- 2 Hainbat adituk eta ikertzailek (hala nola, Miren Llonak, Maria Naredok eta Nerea Barjolak), hainbat antolakundek (adibidez, Mugarik Gabe GGKEak) eta zenbait erakundek (esaterako, Basauriko Udalak) emakumeen esperientzien kontakizunak eta ekarpenak jasotzeak sekulako garrantzia duela nabarmendu dute beren ikerketa eta argitalpenetan.
- 3 Mala Htun eta S. Laurel Weldon. 2012. The civic origins of progressive policy change: Combating violence against women in global perspective, 1975-2005. *American Political Science Review*, 106.
- 4 Feministok Prest! Gasteizko mugimendu feministaren mozioa, «Indarkeria matxisten kontrako borrokari» buruzkoa. 2016ko martxoa.

diagnostikoa egitea, zaintzen eremuko langileen egoerari arreta ematea (bereziki, arrazismo- eta esplotazio-kasuetan), sexu-langileen lan- eta bizi-baldintzak hobetzeko lan egitea, hiri debekatuaren mapa egitea eta mugimendu feminista solaskide gisa aitortzea (neurriak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeari dagokionez). Eskaera horiek, bada, lehen lerroan jarri dituzte erakundeek politika publikoak sustatzeko eta ezartzeko orduan dauzkaten erantzukizuna eta papera.

Alabaina, ez dugu ahaztu behar feminismoa gizarte-mugimendu bat dela eta errealitatea aztertu ondoren garatzen dituela diskurtso politikoa eta ekintza. Izan ere, errealitatea aztertuta jabetu gaitzke emakume izate hutsagatik ezartzen diren diskriminazioez, eta gizartea ildo horretan aldatzeko antolat⁵. Hori dela-eta, proiektu honetan errealitatea aztertzeko, behatzeko eta interpretatzeko tresnatzat hartu dugu **ikuspegi feminista**, eta desberdinkeriazko testuinguru honetan jasaten, kontra egiten, aldarrikatzen eta borrokatzen dutenen ahotsak aintzat hartuko ditugu.

Indarkeria matxista jorratzeko ezinbesteko hausnarketa- eta analisi-tresna da, baita ere, **intersekzionalitatea**, eta dokumentu honetan kontuan izango dugu. Kontzeptu horrekin, bada, elkar gurutzatzen duten eta elkarreraginean dabilzan egiturazko hainbat diskriminazio-iturri daudela ikusarazi nahi da; besteak beste, honako hauek izan daitezke diskriminazio-iturriak: sexua, generoa, adina, gaitasun ekonomikoa, gaitasun funtzionala, kultura, etnia eta abar⁶. Hori ikusita, pertsonak eta haien identitateak zeharkatzen dituzten baldintza ugari daudela ulertu behar da, eta baldintza horiek ezin daitezkeela bereizita tratatu, elkarri lotuta dauden faktoreak baitira. Hala, testuinguruaren arabera, faktore horiek erabakitzaileagoak edo ez hain erabakitzaileak izaten dira. Zenbat eta faktore gehiago elkartu, orduan eta larriagoa eta konplexuagoa izaten da indarkeria-adierazpenen intentsitatea, bai eta horien analisia eta tratamendua ere. Intersekzio-ikuspegiak, bestalde, begirada eta ikusmoldeak zabaltzen ditu, aniztasunaren eta pertsonen agentzia-gaitasunaren ikuspegi ahalduntzaile batetik zabaldu ere. Gaur egungo errealitatea eraldatu nahi bada, funtsezkoa da beste jarduketa-esparru batzuk sortzea. Horretarako, pertsonen (bereziki, gehien diskriminatzen eta baztertzen diren pertsonen) premien, erresistentzien eta disidentzien azterketatik abiatu behar dugu, eta protagonistei elkarrekin edo elkartuta nola erantzun daitekeen galdetu.⁷

Hortaz, mugimendu feministaren aldarrikapenak **giza eskubideak** unibertsal bihurtzeko eskaera dira, emakumeei etengabe urratzen baitzaizkie horiek, bat egiten duten faktoreen kopuruarekin esponenzialki urratu ere, aurreko paragrafoan ikusi dugunez. Horrenbestez, erakundeek eskubide horiek bermatuko dituen eta, beraz,

5 Nuria Varela. *Feminismo para principiantes* (2005:14).

6 Gasteizko Udala. *Hara! Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Plana* (2018-2021).

7 «Berdintasun-politiketan sexu- eta genero-aniztasuna sartzeko orduan dauden erroak, eztabaidei eta praktikei buruzko hausnarketa estrategikoa egiteko jardunaldia sistematizatzea» Berdintasunerako Zerbitzua. Gasteizko Udala, 2017ko azaroa. (Lucas Platero) <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/79/96/77996.pdf>

horien urraketa erreparatuko duen ikuspegi batetik jardunez egin behar dute lan, egia, justizia, erreparazioa, errekupeazioa eta kaltea ez errepikatzea ahalbidetzeko moduan.

Azken batean, erreparaziorako eskubidetik abiatuta, indarkeria matxistaren emakume biktimen eta indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeen memoria indibiduala eta kolektiboa berreskuratzeko orduan aurrera egiteko oinarri teoriko eta praktikoko batzuk ezarri nahi ditu dokumentu honek. Izan ere, prozesu pertsonal eta kolektiboak aktibatuz gero ikusgarritasuna eta gizartearen kontzientzia areagotzea lortzen dela uste dugu, eta, hortaz, gizarteak oro har horrelako errealitate bati ematen dion tratamenduan eragiten dela. Horri begira, bada, bizirik irtendako emakume antolatuen ahotsetatik abiatu nahi dugu, beren diskurtsoen bidez memoria kolektiboa sor dadin.



3. ESPARRU ARAUTZAILEA. ZENBAIT ZERTZELADA

Gaur egungo lege- eta arau-esparruak duen gabeziarik handienetako bat da erreparaziorako eskubidea (kalte-ordaina, erabateko errekupeazioa, gogobetetasuna eta kaltea ez errepikatzen bermeak), bai indarkeria matxistaren emakume biktimea, bai indarkeria hori (zehazkiago, indarkeria LGBTIfobikoa) jasaten edo jasan duten LGBTI pertsona. Alabaina, defizit hori egon arren, eta gaur egungo lege-esparruaren mugak gaindituz, jarduketa-esparrua zabaltzea eta urratutako eskubideak lehengoratzeari nahiz erreparatzeari zuzendutako politika publikoak abiatzea ahalbidetu duten tresnak garatu dira azken urteotan.

Arauzko tresna horien adibide modura, Europako Kontseiluak emakumeen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horren aurka borrokatzen sinatu duen ituna (Istanbulko Ituna) azpimarra dezakegu, zeina loteslea den eta Espainiako estatuak 2014an berretsi zuen. Bertan, emakume biktimek erreparaziorako eta kalte-ordainketarako eskubidea dutela jasotzen da. Edo, berrikiago, Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriei buruzko 9/2018 Errege Lege Dekretua onetsi zuten, eta, bertan, arretoa osoa hobetzei begirako zenbait aldaketa aurreikusten dituzten arauak jasotzen dira⁸.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Planaren bidez, Nazio Batuek indarkeriaren pean dauden emakumeentzako eta neskatilentzako funtsezko zerbitzuen inguruan duen nazioarteko programan parte hartuko duela esaten du. Horrekin, kaltearen erreparazioa lehen aldiz txertatu zaio arretari, *«bai norbanakoa erreparatzeko eskubidea bermatze aldera, emakumeek indarkeriatik irteteko prozesua amaitu ahal izan dezaten, bai erreparazio kolektiborako eskubidea bermatzeko xedez»*.⁹

Toki-mailan, Berdintasuna Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarearen esparruan, 2015etik ari dira udal-

8 Ikusi «9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriei buruzkoa». 1/2004 Legearen 23. artikulua aldatzen duen aldaketa garrantzitsu bat jasotzen du, non honako hau adierazten den: «...genero-indarkeria jazo dela egiaztatzen, halaber, gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo genero-indarkeriaren biktimek hartzen dituzten zerbitzuen (eskudun administrazio publikoko zerbitzuen) txostenak erabili ahal izan dira». Horrela, baliabideetarako eta zerbitzuetarako sarbidea erraztuko da.

9 EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana. Emakunde, Eusko Jaurlaritza, 2018ko maiatza. (2018:102)

sistemara indarkeria matxistaren biktimen aitortza eta erreparaziorako eskubidea txertatzeko xedez lanean, tokiko politika publikoan eraginez.

LGTBI herritarrei dagokienez, gaur egungo lege-esparrutik edo esparru programatikotik harago¹⁰, garrantzitsua da indarkeria LGBTIfobikoaren askotariko adierazpenak aztertzea, horixe baita LGBTI pertsonen kontrako indarkeria espezifikoa, arlo horretako politika publikoak diseinatu nahi badira. *Homofobiaren aurkako Europako Liburu Zuriak* (2011) jasotzen duen moduan, estatistika-daturik ez egoteak eta biktimek eraso LGBTIfobikoak ez salatzeak are gehiago zailtzen dute krimenak eta gorrotorako bultzada jorratzea; are, gabezia hori da horrelako delituak jorratzeko lehenengo oztopoa. Eraso horiek ez salatzeak hainbat arrazoi egon daitezke: LGBTI kolektibokoa izateak dakartzan estigmatizazioa eta kaltea saihestu nahi dituzte; biktima batzuek hainbestetan jasaten dituzte horrelako erasoak, ezen dagoeneko ez baitira horiek salatzeaz kezkatzen; salaketa jartzeko prozedurak konplexuak izaten dira, eta pertsona batzuek ez dute gaur egungo arreta-sisteman konfiantzarik sentitzen. Ondorioz, ez dago erreparaziorako biderik. Faktore horiek direla-eta, delitu LGBTIfobikoek ikusgarritasun publiko eskasa dute. Ondorio horiexek jasotzen dira, halaber, dokumentu hauetan: *Gasteizen sexu eta genero dibertsitatearen aurka izandako erasoei buruzko txostena* (2017ko apirila - 2018ko apirila)¹¹, Lumagorri HAT elkarteak egindakoa, eta *Desirak plazara. Gasteizko LGBTI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoa* (2018:15), Udalaren Berdintasunerako Zerbitzuak egindakoa (2018). Bi dokumentuetan ondorioztatzen denez, arreta espezializatua bermatuko duten baliabideak sartu behar dira arreta-sistemara, eta aurrerapausoak eman behar dira LGBTI herritarren eskubideen aitortzan; bereziki, indarkeriaren biktimen eskubideen aitortzan. Beraz, HARA! agendaren¹² esparruan, agertoki horrek markatuko ditu azalduko errealitateari aurre egiteko garatuko diren jarduketak.


Azkenik, gogoan izan behar dugu, hainbat mugaketa baditu ere, Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legea, honako xede hau baitu: «*Botere publikoek biktimei ahalik eta erantzun zabalena ematea, juridikoa zein soziala, zigor-arloko prozesuaren esparruan kaltea konpontzeko ez ezik, baita izaera horrek moralaren ikuspegitik izan ditzakeen bestelako ondorio traumatikoak arintzeko ere; guztia ere haren prozesu-goera alde batera utzita*».

10 Ikusi esparru arautzaile, programatiko eta eskumenen ingurukoa HARA! Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Planaren (2018-2021) 15. orrialdean.

11 Lumagorri Heterosexismoaren Aurkako Taldea. Gasteizen sexu eta genero dibertsitatearen aurka izandako erasoei buruzko txostena, 2017-2018. <https://blogs.vitoria-gasteiz.org/medios/files/2018/05/OSIG-2017-2018-GASTEIZ-EUSK.pdf>

12 HARA! Agenda. Gasteizko Udalaren berdintasunerako politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko 2018-2021eko plangintza <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/25/80/82580.pdf>

Agertoki horrekin, bada, erreparazio- eta errekupeazio-gaietan dauden politikak berriku daitezke, eta subjektua zabaldu, bestelako indarkeria matxista motak (hala nola, sexu-indarkeria) eta indarkeria hori jaso dezaketen bestelako pertsonak (adibidez, LGBTBI pertsonak) sartu ahal izan daitezen.




4. XEDEAK

XEDE OROKORRA:

Indarkeria matxistari aurre egin edo egiten dioten emakumeak aitortzeko eta haien memoria berreskuratzeko **prozesu bati ekitea**, erreparaziorako eskubidetik abiatuta.

XEDE ESPEZIFIKOAK:

- Indarkeria matxistak Gasteizen utzitako biktimen memoria berreskuratzeko prozesu kolektibo bat diseinatzeko **oinarriak identifikatzea**, egia, justizia, erreparazioa eta kaltea ez errepikatzea ahalbidetzeko moduan.
- Udal-arretara **erreparaziorako eskubidea txertatzeko** ekarpena egitea.
- Indarkeria matxistaren emakume biktimen **aitortzan eta haien memoriaren berreskurapenean aurrera egitea**.



5. METODOLOGIA¹³

Ikerketa tradizionalaren eremua analisi sexista eta androzentrikoak zeharkatu izan du, eta, genero-ikuspegi batetik, emakumeen esperientziak eta diskurtsoak mugatu ditu horrek. Hori dela-eta, ezinbestekoa da praktika zientifiko heteropatriarkalak desegin eta ezagutza nola sor dezakegun birpentsatzea. Hala, **metodologia feminista** erabiliko dugu, ezagutzaren ekoizpen kolektiboan emakumeen ikuspegia eta parte-hartzea txerta ditzagun¹⁴, epistemologia feministaren gidalerroetako bat baita talde sozialetako botere-harremanak aintzat hartzea. Are, «*diskurtso bat sortzeko aukera edukitzea jada botere-ariketa da*¹⁵».

Metodologia hori oinarri hartuta, bigarren mailako iturriak eta guk geuk egindakoak aztertu ditugu¹⁶. Era berean, teknika kualitatiboak ezarri dira, taldeetan antolatuta dauden emakumeen eta indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakumeen diskurtsoei garrantzia emateko, erdi-egituratutako eztabaida-taldeen eta elkarrizketa sakonen bidez.

Taldeetan edo elkarrekin antolatuta dauden emakumeek erreparazioaren eta memoriaren berreskurapenaren arloan dauzkaten pertzepzioen eta premien inguruan diskurtso kolektibo bat sortzea izan da eztabaida-taldeen helburua. Saiok gidoi erdi-egituratu¹⁷ baten bidez dinamizatu dira, eta parte hartzea erraztu duten tresnak erabili dira (hala nola, ideiak edo proposamenak idazteko kartoik meheak edo bestelako tresnak). Azkenean, bi orduko bi eztabaida-talde eta erdi-egituratutako hiru elkarrizketa sakon egin dira.

- 13 Gure xedeetarako metodologia egokiena hautatze aldera, M. Luxanek eta J. Aspiazuk Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna: Berdintasunerako Agentea masterraren (EHU) III. moduluari egin dizkioten ekarpenetan oinarritu gara.
- 14 Irantzu Mendia Azkue, Marta Luxán, Matxalen Legarreta, Gloria Guzmán, Iker Zirion, Jokin Aspiazu Carballo (ed.). *Otras formas de (re)conocer. Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*. 2014.
- 15 M. Luxan eta J. Aspiazu. Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna: Berdintasunerako Agentea masterraren (EHU) III. modulu.
- 16 Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren inguruan kontu emateko zifren eta datuen txostena, 2018ko urtarrila-urria. Gasteizko Udalak Indarkeria Matxistaren aurrean Jendaurreko Erantzuna emateko Protokoloa.
- 17 Ikusi eztabaida-taldeen gidoi erdi-egituratua 1. eranskinean.

	TALDEA/ELKARTEA/ERAKUNDEA	PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA
1. TALDEA	ARABAKO GORRAK	1. parte-hartzailea
	BERRI ÑANN	1. parte-hartzailea
	EMAKUMEAK ANIZTASUNEAN	1. parte-hartzailea 2. parte-hartzailea
	EONCULT	1. parte-hartzailea 2. parte-hartzailea <i>[Hirugarren emakume bat behatzaile gisa bertaratu da]</i>
	GAO LACHO DROM	1. parte-hartzailea 2. parte-hartzailea
2. TALDEA	SIDALAVA	1. parte-hartzailea 2. parte-hartzailea
	ASAFES	1. parte-hartzailea
	SARTU	1. parte-hartzailea 2. parte-hartzailea
	AD SIS	1. parte-hartzailea

Eztabaida-taldeen osaera:

- **1. taldea:** Talde hauetako 8 emakume militante: Arabako Gorraak, Berri Ñann, Eoncult, Gao Lacho Drom eta Emakumeak Aniztasunean.
- **2. taldea:** Honako erakunde hauetan lan egiten duten 6 emakume: Adsis, Asafes, Sartu eta Sidalava.

Garrantzitsua da adieraztea indarkeria-gertakariren bat jasan izana eztabaida-taldeetan parte hartzeko betekizuna ez bazen ere parte-hartzaile batzuek indarkeria matxistaren inguruko bizipenak azaldu dituztela.

Elkarrizketa sakonen osaera:



	ADINA	JATORRIZKO HERRIALDEA	LANEKO EGOERA	FAMILIA-NUKLEOA
A ELKARRIZKETATUA.	41	Kolonbia	Langabea, prestakuntza egiten.	15 urteko alaba
B ELKARRIZKETATUA.	>55	Bolivia	Langabea, lan bila.	Lau alaba (horietako bat Bolivian) eta seme bat.
C ELKARRIZKETATUA.	53	Gasteiz	Lanean eta prestatzen.	Aniztasun funtzionala duen seme adin nagusiko bat eta alaba adingabe bat.

Elkarrizketa sakonen bidez, protagonistek biktimen arreta integralaren, erreparazioaren, aitortzaren eta memoriaren berreskurapenaren arloan izandako bizi-esperientziak, pertzepzioak eta ekarpenak ezagutu nahi izan dira.

HARA! Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Planean, indarkeria matxistari dagokionez, testuinguru kultural aniztetakoak izateagatik edo aniztasun funtzionala edukitzeagatik indarkeria matxistaren aurrean zaugarritasun bereziko egoeran dauden emakumeak eta LGBTI pertsonak jasotzen dira lehentasunezko kolektibo gisa. Elkarrizketetarako, bi emakume migratzaile eduki ahal izan ditugu. Oraingo honetan, elkarrizketetan ez dute parte hartu LGBTI pertsonak eta aniztasun funtzionala duten emakumeek, baina emakumeetako baten semeak nahasmendu neurologiko diagnostikatua dauka; hortaz, desgaitasun funtzionalaren arloan jasotako arretan dauzkan esperientzien berri eman ahal izan digu, seme-alaba adingabeak ere genero-indarkeriaren zuzeneko biktimatzat jotzen direla ahaztu gabe¹⁸.

Diskurtsoen edukiak ikergai diren gaien inguruko hausnarketak eta analisi teorikoak eraikitzen joango dira.

18 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena. 2015eko uztailaren 23ko BOE, 175. zk., 2.537. or.



6. GASTEIZKO INDARKERIA MATXISTAREN ERREALITATEA

Atal honetan, datu kuantitatiboen bidez emango da Gasteizko indarkeria matxistaren errealitatearen berri. Izan ere, errealitatea modu kuantitatiboan edo zenbakarrian ikusarazteak erraztu egiten du aurrez aurre dugun arazo sozial larria eta haren handitasuna argi eta garbi adieraztea. Hala ere, datuei heldu aurretik, esan beharra dago arazoa askoz ere handiagoa dela datuetan islatzen dena baino, indarkeria-egoeran dauden emakume askok ez dutelako harremanik izan erakundeekin eta ez dutelako egoerari aurre egiteko prozesu judizialik abiatu: dauzkaten bitartekoen bidez egiten diote aurre, eta, askotan, bakarrik. Beraz, dauzkagun datuetan oinarrituta indarkeriaren arazoa handia dela ikus dezakegun arren, datuetan jasotzen ez dena aintzat hartuz gero errealitatea are latzagoa dela pentsatu behar dugu.

Emakundeek argitaratu dituen azken datuen arabera¹⁹, Ertzaintzaren Segurtasun Sailak **4.020 emakumeren 4.999 biktimizazio-kasu**²⁰ zenbatu zituen 2017an Euskadin. Gainera, zehaztu denez, emakume horien % 72,3ri bikotekideak edo bikotekide ohiak egin zien eraso. % 20k familia barruko indarkeria jasan zuten, eta % 7,7k familia-eremutik kanpoko gizon baten sexu-erasoa pairatu zuten.

Urte berean, Ertzaintzak erregistratutako biktimizazioen % 14,54 Araban gertatu ziren. Gasteizen, 573 erregistratu zituen; hau da, 45,31 biktimizazio gertatu ziren 10.000 emakumeko.

Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Institutuaren Hegoak zerbitzuan, 2018an % 7 egin zuten gora pertsona artatuek; hau da, 652 kasu gehiago egon ziren. Bada, horiek aurreko urteetako kasu aktiboek gaineratuta, 1.035 emakumeri eta adingaberi eman zitzairen arreta.²¹

2018ko urtarriletik urrirako aldian, Gasteizen²², Gizarte Politiketako eta Osasun Publikoko Sailak **567 emakumeri eman zien arreta** indarkeria matxistaren

19 Emakunde. EAEn 2017an indarkeria jasan duten emakumeei laguntzeko baliabideen irismenaren gaineko datuak. Informazioaren analisia. (2018ko urria).

Emakunde. EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa 2017ko datu estatistikoak. (2018ko abendua).

20 «Emakumeak delitu penal baten xede izandako aldi bakoitza dira biktimizazioak. Emakume berbera biktimizazio baten baino gehiagoren xede izan daiteke». (Emakunde. EAEn 2017an indarkeria jasan duten emakumeei laguntzeko baliabideen irismenaren gaineko datuak. Informazioaren analisia. 2018).

21 <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizarte/osoa/6214745/indarkeria-matxista-araban-2018an-emakume-gehiago-artatu-ditu-hegoakek/>

22 Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren inguruan kontu emateko zifren eta datuen txostena. 2018ko urtarrila-urria.

indarreko problematika dela-eta. 567 horietatik 187 2018an erregistratutako auzi berriak izan ziren.

Gizarte Politiketako eta Osasun Publikoko Sailak artatutako 567 emakumeetatik 80k Udaltzaingoaren esku-hartzea izan zuten, eta horietako 37 2018ko urtarriletik urrira bitartean erregistratutako kasu berriak izan ziren.

Taula honetan, emakume horien kontra ezarritako **indarkeria motak** jasotzen dira. Problematiken guztizko kopurua handiagoa da artatutako emakumeena baino, biktima bakoitzak indarkeria matxista mota bat baino gehiago jasan ditzakeelako.


Genero-indarkeriaren taldeko arazoa	Ez berria	Kasu berria	Guztira
EMAKUMEARENGAKO TRATU TXAR EMOZIONAL/PSIKOLOGIKOA	233	107	340
EMAKUMEARENGAKO TRATU TXAR FISIKOA	162	65	227
BIKOTEKIDE OHIAK EMAKUMEARI EMANDAKO TRATU TXAR PSIKOLOGIKOA	37	13	50
EMAKUMEARENGAKO TRATU TXAR MATERIAL/EKONOMIKOA	36	12	48
SEGURTASUN-INDARREK BALORATUTAKO ARRISKU-EGOERA	27	11	38
GENERO-INDARKERIA DUTEN HARREMAN SENTIMENTAL ERREPIKATUAK	12	6	18
BIKOTEKIDE OHIAK EMAKUMEARI EMANDAKO TRATU TXAR FISIKOA	10	4	14
EMAKUMEARENGAKO TRATU TXAR SEXUALA	10	3	13
BIKOTETIK KANPOKO SEXU-ERASOA	6	6	12
BIZIKIDETZA BERRIRO HASTEAN, GENERO-INDARKERIA EGONDA	5	4	9
ADIN NAGUSIKO SEMEEK AMEI GENERO-DESBERDINKERIAZ EZAIRITAKO INDARKERIA	1	1	2
SEXU-JAZARPENA ETA LARDERIA EMAKUMEARI LANEAN, ERAKUNDEETAN EDO BESTE TOKI BATZUETAN	1	-	1
Guztira	540	232	772

Iturria: Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren inguruan kontu emateko zifren eta datuen txostena. 2018ko urtarrila-urria (www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna atarian argitaratua).

Taulan ikus daitekeenez, tratu txar emozional edo psikologikoa da ohikoena, eta, ondoren, tratu txar fisikoa dator.

2018ko urtarriletik urrirako aldian, Udaltzaingoa emakumeen **sexu-askatasunaren kontrako 24 delitu** zenbatu zituen. Delitu horien % 33,33 14 urtetik beherako emakumeen kontra egin ziren, datu berberen arabera. Sexu-erasotzaileen % 75, ordea, 30 urtetik gorakoa da.

2018an, Arabako lurralde historikoan hiru emakume **hil zituzten**; horietako bi, Gasteizen.



Gasteizko hilketa matxistek edo hiriarekin loturaren bat zuten emakumeen hilketek 10 urtetan izan duten bilakaera. Iturria: Guk geuk egina.

Bizikidetzaren unitateari buruzko datuak:

Indarkeria matxista jasaten edo jasan duten 567 emakume horien familia-nukleoetan, **649 adingabe** daude.

Taula honetan, Gizarte Politiketako eta Osasun Publikoko Sailak indarkeria matxistarengatik artatutako emakumeen **familia-eldakortze motak** jasotzen dira.

Familia mota, multzokatuta	Ez berria	Kasu berria	Guztira
GURASO BAKARREKOA	154	59	213
NUKLEARRA, SEME-ALABEKIN	111	41	152
PERTSONA BAKARREKOA	80	57	137
NUKLEARRA, SEME-ALABARIK GABE	15	15	30
BESTE BATZUK	10	9	19
HEDATUA, AHAIDETASUN-HARREMANAREKIN	10	6	16
Guztira	380	187	567

Iturria: Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren inguruan kontu emateko zifren eta datuen txostena. 2018ko urtarrila-urria.

Datu horien arabera, artatutako emakumeen % 37k osatzen dituzte guraso bakarreko familiak.

Indarkeria matxistan dagoen interseksionalitatea, datuen arabera

Gizarte Politiketako eta Osasun Publikoko Sailean indarkeria matxistarengatik artatutako emakumeen jatorriari begiratzen badiogu, % 53 autoktonoak dira, eta % 47k jatorri atzerritarra dute. Azken horien artean, gehienak Latinoamerikako herrialdeetakoak dira, eta, ondoren, Magrebekoak.

Udaltzaingoaren esku-hartzea eduki duten emakumeen % 74,20 autoktonoak dira.

Hala ere, honako hau jasotzen da 2015eko makroinkestan²³: «*Genero-indarkeriaren prebalentzia, dimentsio guztietan, handiagoa da atzerrian jaiotako emakumeengan, indarkeria hori bikotekideak, edozein bikotekide ohik edo bizitzan izandako edozein bikotekidek ezartzen duenean*». (2015:349)

Erreferentziazko esparruan ikusi dugun bezala, eta azterketa kualitatiboan ikusiko dugunez, indarkeria areagotzen duen egiturazko diskriminazio-iturria da arrazalizazioa. Gaur egungo Atzerritartasunari buruzko Legea²⁴ ere emakume migratzaileentzat oztopo handia izan daitekeela ikusiko dugu, egitateak salatzeari dagokionez. Beraz, ez dago tokiz kanpo pentsatzea Udalak sailen bidez erregistratzen dituen datuek ez dutela emakume migratzaileen gainean ezartzen den indarkeria matxistaren errealitate gutzia islatzen.

Emakundek²⁵ ohararazten duen moduan, ez dago EAEnko arreta-zerbitzuek artatzen dituzten eta aniztasun funtzionala duten emakumeak zenbatzen dituen datu nahikorik. Gasteizen, Udaltzaingoak²⁶ adierazi duenez, artatu diren 349 emakumeetatik 2k nolabaiteko desgaitasuna dute.

Datu hori osatze aldera, eta 2015eko makroinkestan islatzen denez, % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna egiaztatuta duten emakumeen % 23,3k diote indarkeria fisikoa edo sexuala jasan dutela eta bikotekideen edo bikotekide ohien beldur direla; zifra altua da hori, desgaitasun-ziurtagiririk ez dutenen % 15,1ekin alderatuz gero. Zentzu horretan, deigarria da, halaber, desgaitasunen bat duten emakumeen % 7,1ek beldurra diotela gaur egungo bikotekideari. Desgaitasunik ez duten emakumeen artean, prebalentzia hori % 2,7koa da; hau da, bikoitza baino gehiago da desgaitasunen bat dutenena. Kontuan hartu behar da datu horiek ez dutela jasotzen desgaitasun-ziurtagiria ez duten edo % 33tik beherako desgaitasun-maila duten emakumeen errealitatea. Europako Parlamentuak talde gutxituetako

23 Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko 2015eko makroinkesta. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa.


24 2/2009 Lege Organikoa, abenduaren 11koa, Espainian dauden atzerritarren eskubideei eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duena.

25 Emakunde. EAEn 2017an indarkeria jasan duten emakumei laguntzeko baliabideen irismenaren gaineko datuak. Informazioaren analisia. (2018ko urria).

26 Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren inguruan kontu emateko zifren eta datuen txostena. 2018ko urtarrila-urria.

emakumeen egoerari buruz egin duen txostenaren arabera²⁷, aniztasun funtzionala duten emakumeek (bereziki, aniztasun intelektuala edo gaixotasun mentala dutenek) gainerako emakumeek baino lau aldiz arrisku handiagoa dute indarkeria jasateko.

INDARKERIA FISIKOA ZEIN SEXUALA EDO BELDURRA JASAN DUTEN EMAKUMEAK, DESGAITASUNA AITORTUTA EDUKI ALA EZ (%). ESPAINIA. 2015



Iturria: Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko 2015eko makroinkestak. Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa.

Indarkeria matxista jasateko prebalentzia handiagoa duen beste talde bat **prekariatate-egoeraren** batean daudenena da. Gasteizko Udalak kontu emateko txostenean azaltzen denaren arabera, Gizarte Politiketako eta Osasun Publikoko Sailak 2018an indarkeria matxistarengatik artatutako emakume askok arazo erantsi bat edo batzuk zeuzkaten. Zehazki, 2.704 zailtasun-egoera erregistratu ziren, eta arazo ekonomikoak nahiz laneratzeko zailtasunak errepikatu ziren gehien.

27 Europako Parlamentua. Emakumeen Eskubideen eta Aukera Berdintasunaren Batzordea. *Talde gutxituetako emakumeen egoerari buruzko txostena, Europako Parlamentuarena. 2004. Hemen lor daiteke: <http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+REPORT+A5-2004-0102+0+DOC+XML+V0//ES>*

Sexu-joeraren edo genero-identitatearen kontrako gorroto-delituengatik erasoei dagokienez²⁸, Barne Ministerioaren azken txostenean²⁹ (2016) ikus dezakegu Espainiako estatuan 230 kasu erregistratu zirela; hau da, aurreko urtearekin alderatuta, % 36,1 gehiago. Eraso horietako bost Araban egin ziren. Euskadiko gorroto-delituei buruzko azken txostenaren arabera (2018)³⁰, erregistratutako delituen % 30ek sexu-joerarekin eta sexu-identitatearekin eduki dute zerikusia, 2017an baino zertxobait gehiago.

2018ko urtarriletik urrira bitarteko aldian, betiere Gasteizko Udaltzaingoa datuen arabera³¹, ez da sexu-joerarengatik edo genero-identitatearengatik gorroto-deliturik erregistratu. Alabaina, horrek ez du esan nahi halakorik gertatu ez denik; izan ere, kontu emateko txostenean proposatzen denez, «*Aldagai hori aztertzeari begira, datuak biltzeko sistema berrikusi behar dela hauteman da, sexu-joeragatik edota genero-identitateagatik gorroto-delituek LGBTI pertsonen errealitatearekin eta premiekin bat egin dezatela bermatzeko xedez; hau da, tratamendua eraginkorragoa izan dadin*». Gainera, desberdintasunak hauteman dira poliziaren datu horien eta Gasteizko Sare Transbollarikak jasotako datuen artean, 2017an 10 kasu izan zirela esaten baitu azken horrek³².

Indarkeria matxistaren gaineko pertzepzioei buruzko datuak:

Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: herritarren pertzepzio eta iritziak (2015)³³ ikerlanaren arabera, euskal herritarren % 77k uste dute gizonen eta emakumeen artean **desberdinkeriak egoten jarraitzen badu** emakumeek indarkeria jasaten jarraituko dutela.

28 «(A) Zigor-arloko edozein etsaitasun-egintza edo arau-hauste, pertsonen edo jabetzen aurkako arau-haustek barne hartuta, B aldean zehaztutako talde mota batekin –benetan edo hala hautemanda– duen harremanagatik, begikotasunagatik, ahaidetasunagatik, babesagatik edo talde horretakoa izateagatik hautatzen direnean biktima, lokala edo arau-haustearen xedea; (B) Taldeko kideek ezaugarri bera eduki behar dute; hala nola, benetako edo hautemandako arraza, jatorri nazional edo etnikoa, hizkuntza, kolorea, erlijioa, sexua, adina, adimen-desgaitasuna edo desgaitasun fisikoa, sexu-joera edo antzeko alderdiren bat». (ESLA, 2003) (Gasteizko Udalak Indarkeria Matxistaren aurrean Jendaurreko Erantzuna emateko 2018ko Protokolotik ateratako definizioa).

29 Barne Arazoetako Ministerioa, 2016. Gorroto-delituekin zerikusia duten gertakariak Espainian izan duten bilakaerari buruzko txostena.

30 Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza. 2018ko apirila. Euskadiko gorroto-gertakariak buruzko 2018ko txostena.

31 Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren inguruan kontu emateko zifren eta datuen txostena. 2018ko urtarrila-urria.

32 Lumagorri Heterosexismoaren Aurkako Taldea. Gasteizen sexu eta genero dibertsitatearen aurka izandako erasoei buruzko txostena, 2017-2018. <https://blogs.vitoria-gasteiz.org/medios/files/2018/05/OSIG-2017-2018-GASTEIZ-EUSK.pdf>

33 Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, *Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: herritarren pertzepzio eta iritziak*. (2015).


Era berean adierazten denez, 2004tik 2015era igo egin da **inguru hurbilean** emakumeen kontrako indarkeria-kasuren baten berri dutenen kopurua, % 27koa izaki.

Indarkeria matxistaren larritasunari dagokionez, galdeketa bete dutenen % 96k oso larritzat jo dituzte eraso fisikoak (hala nola, kolpatzea eta jotzea), eta, ondoren, sexu-harremanak borondatearen kontra edukitzera behartzea (% 88). Dena dela, parte-hartzaileen % 31k onartu egiten dute bikote barruko kontrol-indarkeria.

Txosten beraren arabera, inkestatutako pertsonen % 38k uste dute **genero-indarkeriagatiko salaketa asko faltsuak** direla.

Estatu-mailako *Percepción social de la violencia sexual*³⁴ azterlanak erakusten duenez, gizonen % 28,3 bakarrik ez daude batere konforme baieztapen honekin: «Emakume askok puztu egiten dute indarkeria matxistaren arazoa».

34 Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa. *Percepción social de la violencia sexual, 2018*. Hemen eskuragarri: http://www.violenciagenero.igualdad.mpr.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/investigaciones/2018/doc/Percp_Violencia_Sexual.pdf



7. ERREPARAZIOARI, AITORTZARI ETA MEMORIARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA, EMAKUMEEN AHOTSETATIK ABIATUTA

1.1. Aitortza eta erreparazioa jorratzeari buruzko hausnarketak

- 1.1.1. Erreparazio osorako eskubidea birpentsatzen
- 1.1.2. Indarkeriatik irtetea eta eskubideak lehengoratztea, arreta oso-osoa emanda
- 1.1.3. Erakundea, babes- eta arreta-bermatzaile
- 1.1.4. Kalte-ordain ekonomikorako eskubideari buruz
- 1.1.5. Erreparaziorako bide berriei begira

1.2. Indarkeria matxistak Gasteizen utzitako biktimak eta hortik bizirik irtendakoak aitortzea eta haien memoria berreskuratzea

- 1.2.1. Emakumeen eta indarkeria matxistaren ikusezintasun soziala
- 1.2.2. Indarkeria matxistak emakumeen gainean duen karga sinbolikoaren inpaktua
- 1.2.3. Sinbolikotik tokia ematea
- 1.2.4. Indarkeria matxistaren biktimen eta bizirik irtendakoen erreparaziorako proposamenak

1.3. Babesa, arreta eta erreparazioa, prozesu paralelo gisa

- 1.3.1. Emakume erreferenteak
- 1.3.2. Memoriarako gunea
- 1.3.3. Interseksionalitatea, ikuspegi gisa
- 1.3.4. Erakundeen eginkizuna
- 1.3.5. Emakumeen sareak
- 1.3.6. Erreparazio-arloko ideia zehatzak gure hirirako

1.1. AITORTZA ETA ERREPARAZIOA JORRATZEARI BURUZKO HAUSNARKETAK

1.1.1. ERREPARAZIO OSORAKO ESKUBIDEA BIRPENTSATZEN

Eztabaida-taldeetan eta elkarrizketetan, zaila izan da indarkeria matxistaren biktimen aitortza eta erreparazioa **jorratzea**. Gauza bera gertatzen da esparru teoriko eta legegilearen analisisan, ibilbide eskasa egin baita indarkeria matxistari dagokionez. Prozesu horiek memoriaren eta erreparazioaren arloan **oro har ez ezagutzearen** edo arreta-sisteman **gutxitan aplikatzearen** isla izan daiteke hori. Dirudienez, kontzeptu **berriak** dira oraindik ere.

«Oso kontu berria dela uste dut, eta ez dakit jorratzen ari ote den».

(2. taldea, Sartu, 1. parte-hartzailea)

«Gizartean ere ez da entzuten. Beno, agian, nik ez dut entzun.

Indarkeriaren emakume biktimei laguntzeko kanpainarik ez dut ikusi, aitortzaz edo erreparazioaz mintzatzen denik. Hau da, ez da aipatzen. Eta, aipatzen ez dena, ez da existitzen».

(2. taldea, Sartu, 2. parte-hartzailea)

Interesgarria da munduko beste toki batzuetako **esperientziei** erreparatzea, aitortza- eta erreparazio-prozesuek ibilbide luzeagoa baitute egina. Eredu argiena **Latinoamerikan** daukagu: han, giza eskubideen eremutik eta egiaren, justiziaren eta erreparazioaren aitortzaren esparrutik abiatuta, prozesuaren garrantziari begiratzen diote askotariko gizarte-eragileek, eta toki garrantzitsua ematen diete **hala elementu eta ekintza sinbolikoei, nola eskubideen bermeari**, erreparazioari bide emate aldera. Gehienbat, gerraosteko edo gatazka armatuak konpontzeko testuinguruetan kokatzen dira, bai eta aurreko mendeko diktaduretan ere, justizia, egia eta erreparazioa bilatzeko prozesuak abiarazteko premia handia sortu baita.

Hemen, emakumeen, mugimendu feministen eta giza eskubideen defendatzaileen eginkizuna giltzarria da, ikuspegi feministaren txertaketa aztertu nahi badugu. Emakumeen papera berreskuratzea eta aitortzea da erreparazioa **ikuspegi feminista, interseksional eta giza eskubideen arlokotik** lantzeko lehenengo urratsa. Abiapuntu horrek askotariko indarkeriak ikusaraztea eta indarkeria horiek emakumeengan duten inpaktua agerian jartzea ahalbidetu du; beraz, **lehentasunezko helburua** da indarkeria matxistaren esparruan erreparazioa planteatzea.

EAEEn ere, batez ere mugimendu feministak eta emakumeen mugimenduak gidatzen dituzte indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei aitortza egiteko nahiz haien memoria berreskuratzeke jarduera, prozesu eta ekintza sinbolikoak. Beti erreparaziorako estrategiatzat jotzen ez diren arren, horretarako balio dute:

«Emakumeak Aniztasunean elkartearen ekintza ezagunena azaroaren 25eko zuhaitz-landaketa da, eta sentsibilizazio-ekintza da, zeina azken urtean antzerkiko haur txikien emanaldi batekin egin zen. Zuhaitz-landaketan, egun horretan zuhaitza landatzeak energia ematen die bizirik atera diren emakume askori, emakume asko etortzen baitira guk maneiatzen dugun sare baten bidez, legitimazioa sentituta».

(1. taldea, Emakumeak Aniztasunean, 1. parte-hartzailea)

Beste batzuetan, emakumeak erreparatzeko prozesuan laguntzeko jarduerak izaten dira, topalekuak, osatzeko eta laguntzeko prozesuak, arretaren, deribazioaren eta jarduketaren esparruko erreparazioarekin loturikoak. Horixe da Gasteizko Bizirik, Vivas nos queremos eta Kuentame elkarten kasua.

«Eonculteti elkartetik gatoz, (...), kulturarteko elkarte feminista eta solidario batetik. Genero-indarkeriaren biktimekin egiten dugu lan, aholku ematen dugu, eta bidelaguntzaile aritzen gara».

(1. TALDEA, Eoncult, 1. parte-hartzailea)

Halaber, sentsibilizazioaren, kontzientziazioaren eta prebentzio-jardueraren esparruan jarduera ontzat jotzen diren esperientziak daude. Horrelakoetan, harremanak eraldatzen dira ekintzen eta lan-prozesuen bidez, eta desberdinkeria nahiz indarkeria matxistaren foku posibleak hautemateko guneak irekitzen dira. Egitura profesionalizatuagoa duten antolakundeek gehiagotan aipatzen dute lan mota hori:

«Prestakuntza sozio-hezitzailean ere, bidelaguntzaren ikuspegitik egiten dugu lan, eta, batzuetan, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak egoten dira. Horrelakoetan, prozesu horietan laguntzen dugu, baliabideekin eta zerbitzuekin koordinatuta eta babesa emanez». **(2. taldea, Sartu, 1. parte-hartzailea)**

«Proiektu ezberdinetan lanean ari garen hiru pertsonako berdintasun-talde bat sortu dugu. Batek oinarritzko lanbide-prestakuntza darama, beste batek migratzaileekin egiten du lan, gaztelaniaren eta prestakuntzen arloan, eta, gero, ni nago, Asia23 proiektuarekin, 23 urtetik beherakoekin lanean». **(2. taldea, Adsis, 1. parte-hartzailea)**

Prozesu horien harira, batzuetan, problematikan sakontzeko eta haien diskurtsoa eta bizipena egituratzeko orduan lagundu duten jarduerak abiatu ahal izan dira (hala nola, neska gazteentzako autodefentsa feministako ikastaroak), intentsitate baxuko eta ertaineko indarkeria-egoerak identifikatu ondoren:

«Autodefentsa-ikastaro bat egin genuen gazte horiekin, zentzoko neska gazte guztiekin, Jabetze Feministarako Eskolarekin batera, eta ondo egon zen. Orain, martxoaren 8ko greba eta horrelako gauzatxoak ari gara prestatzen haiekin». **(2. taldea, Adsis, 1. parte-hartzailea)**

1.1.2. INDARKERIATIK IRTETEA ETA ESKUBIDEAK LEHENGORATZEA, ARRETA OSO-OSOA EMANDA

Indarkeria matxistaren biktimekin eta hortik bizirik ateratakoekin egiten den lanean, erreparazioa arretaren fase guztietan eta geroko errekupeazioan **zeharkako elementua** dela ulertu beharko litzateke; ideia horrek gidatu beharko luke lana. Parte-hartzaile batek gaur egun arreta nola ulertzen dugun ikusteko gakoa eman du:

«Uste dut zerbait berria dela. Guztia prozesu baten zatia izan dela uste dut. Hasieran, oso finkatuta geunden salaketaren kontuarekin; gero, salaketak ez duela zertan beti irtenbidea izan ikusi genuen, eta uste dut orain garrantzi handiagoa ematen zaiola emakumeak aitortza eta prozesu bat edukitzeari. Hau da, arreta ez dela amaitzen erasotzailea kartzelan dagoenean edo nik nire bizitza berregiten dudanean. Jarraipenarekin jarraitu behar dela».

(2. taldea, Sidalava, 2. parte-hartzailea)

Hots, gabeziak hautematen dira **arreta integralean**, indarkeriatik irtetera eta emakumeak prozesu judizialaren bidez babestera mugatzen dela ematen du-eta; **salaketak** pisu handia dauka. Alabaina, arreta nahikoa ez dela uste da, ez delako biktimak errekupeatzeko eta erreparatzeko benetako premietan laguntzen. Zentzu horretan, salaketarik jartzen ez den kasuen inguruan hausnar genezake, bai eta salaketarik ez jartzeak eskubideen erabileran (adibidez, **kalte-ordainak** jasotzeko orduan) dituen ondorioen nahiz **indarkeria ez errepikatzeko bermeei heltzeko zailtasunen** inguruan pentsatu ere.

Zentzu berean, zigor-epairik ematen ez bada, bai salaketarik jarri ez delako, bai salatutako egitateak frogatutzat jo ez direlako, baliabide jakin batzuetara iristeko, eskubideak lehengoratzeko edo **egia hedatzeko** zailtasunak egon daitezke, zeinak giza eskubideen nazioarteko sistemak aitortzen dituen³⁵.

Parte-hartzaileen bizipenetatik ondoriozta daitekeenez, **erakundeek indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko prozesua** eten egiten da babesaren eta salaketaren inguruko jarduketak estaltzen direnean. Pertsonaren **bidelagun** izateko eta laguntza emateko arloak, ordea, ez dira berdin estaltzen; hala nola, **eskubideak lehengoratzean, kaltea erreparatzean, jasandako indarkeriaren kontaketa egitean eta, indarkeria ez errepikatzea**

35 2005/35. Giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketei eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketei begira, biktimek errekurtsioak jartzeko eta ordainak jasotzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipioak eta jarraibideak. Office of the High Commissioner for Human Rights.

bermatze aldera, giza eskubideen esparrutik abiatuta, indarkeriarik irten osteko **erronka berriei aurre egitean**. Hau da, indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta eskubide mugatutzat hartzen da, eta **ez da ez integrala, ez eraginkorra**.

«Jakina, alde batetik, boluntarioa izan behar du, eta, gero, erakundeak daude, ezin duzulako pertsona bat utzi... Hau da, ingurune batetik atera da, eta hor uzten duzu, ezerezean».

(2. taldea, Asafes, 1. parte-hartzailea)

«Nik gabezia asko ikusten ditut. Are gehiago, prozesu judiziala eta urruntze-agindua dituen neska gazte bat ari naiz ikusten. Urruntze-aginduan geratzen da guztia, baina berdin dio, tipoa etorri egiten delako, parke berean esertzen delako eta ni naizelako alde egin behar duena. Eta ez dago prozesu horretan laguntzen didan inor. Kito, honekin kasua itxiko dugu: kapitulua itxi, eta bizitzak aurrera jarraituko du. Hau da, baloratzen ari ez den «post» bat dago: pisua, pisu itzela izango duen horretan guztian ez da laguntzen».

(2. taldea, Adsis, 1. parte-hartzailea)

Kolonbiako Mujeres que Crean³⁶ taldearen esperientzia jasoko dugu hemen, jarduera on gisa. Taldeak bere txostenean adierazi duenez, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako erreparazio-neurriek integralak izan behar dute hasiera-hasieratik, eta oinarrizko premiak estali behar dira, erreparazio oso-osoari bide emateko. Eta estatuak kalte-ordaina eman behar du, herritar guztiei indarkeriarik gabeko bizitza bermatzeko arduraduna baita. Txostenean aipatzen den inkestan parte hartu duen emakume batek esaten duen bezala, «emakumeentzako erreparazioak goitik beherakoa izan behar du, integrala, kalte moralak, sozialak, politikoak eta ondasunetakoak bezalaxe, inolako murrizketarik gabe».

Azken batean, eztabaida-taldeetan parte hartu duten emakume antolatuen diskurtsoen bidez ikusi dugunez, **erreparaziorako eskubideak** (indarkeriaren aurreko egoerara itzultzea eta urratutako eskubideak lehengoratzeko, kalte-ordaina, errehabilitazio psikosoziala eta kaltea ez errepikatzeko bermeak) **urratzen dira**.

Zehazki, indarkeria-kasuari arreta eman ondorengo **arreta psikologikoan eta biktimen prozesuaren bidelaguntzan nahiz jarraipenean** hauteman dira gabeziak. Maria Naredo berdintasun-arloko abokatu eta ikertzailearen esanetan, «biktimei ematen zaien arreta instituzionalean aldizkako indarkeriatzat hartzen da, eta ez indarkeria erlazionaltzat»³⁷.

36 Caracterización de la situación socioeconómica de las mujeres víctimas de violencia sociopolítica participantes del proceso formativo en el marco del proyecto "Vivir sin violencias, un derecho también en contextos de paz". Corporación para la Vida. Mujeres que Crean. Lina Fernanda Restrepo Mora. Medellín, 2017ko urria, 35. or.

37 Hala Bedi irratian Maria Naredori egindako elkarrizketa. 2016ko azaroaren 25a.

«Are, guri ez ziguten geroko inolako arretarik eskaini, ez psikologikorik ez bestelakorik. Egia da aitak kalte-ordaina ordaindu behar izan zigula [aita zen erasotzailea], ordaindu egin behar izan zuen, baina ez ziguten psikologorik eskaini, eta amari ez zioten bizitzeko tokirik ere eskaini, ezertxo ere ez. Geure kabuz moldatu behar izan genuen». (1. taldea, Eoncult, 1. parte-hartzailea)

«Elkartean, neska gazte baten kasua dago, non auzokide bat jazarpena egiten ari zaion. Epaitegietara iritsi den arte. Eta bai, urruntze-agindua lortu zuen, baina beldurra dio (...). Eta, astebete igarotakoan, epaitegitik deitu zioten esateko ez duela zertan urruntze-agindua eduki, haien ustez ez delako jazarpenik jasaten ari. Nola esan dezakezu...? Orain, sare sozialekin eta dauden hamaika moduekin, barruan beldurra sortzen zaizu, ezta?». (1. taldea, Berri Nann, 1. parte-hartzailea)

1.1.3. ERAKUNDEA, BABES- ETA ARRETA-BERMATZAILE

Talde batean, arreta instituzionalari buruzko kezka handiak azaldu dira, baita mekanismo burokratikoek eskubideak eta baliabideak erabiltzeko eta horietara iristeko orduan jartzen dituzten **oztopoen** ingurukoak ere.

Oztopo horietan, batez ere hiru alderdi nabarmentzen dira: **irisgarritasun-zailtasunak**, nolabaiteko **aniztasun funtzionala**³⁸ dutenentzat bereziki; **emakume atzerritarra edo migratua** izatea bera, horrek dakartzan interseksionalitate guztiarekin (egoera administratiboa, arrazalizioa, jatorri kulturala, hizkuntza eta abar), eta, azkenik, arreta-sistemek berezkoak dauzkaten **zirkuitu burokratiko**en ondoriozko oztopo-metaketak.

Hara! Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Planak zerbaitengatik identifikatzen ditu aniztasun funtzionala duten emakumeak eta askotariko testuinguru kulturaletako emakumeak zaurgarritasun bereziko kolektibo gisa, indarkeria matxistaren arloko premiei eta interesei dagokienean. Gaiari buruzko hainbat ikerketak eta txostenek errealitate hori berresten dute, eta, zehazkiago, hiriko emakume atzerritarren eta migratuen elkarteek edo Arabako Gorra eta Eginaren Eginez bezalako elkarteek.

<https://halabedi.eus/tag/maria-naredo/>

38 «Eginean Eginez elkartean, kezkatuta gaude aniztasun funtzionala duten emakumeak haien generoarekin identifikatzen ez direlako eta gainerako emakumeen zati batek emakumetzat hartzen ez gaituelako. Horri irtenbidea jarri beharko litzaioke; seguru asko, emakume guztiak pertsonalki eta kolektiboki ahalduzko xedea bideragarri egingo duten tresnen bidez». Eginaren Eginez elkarteak Hara! Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Planari (2018-2021) egindako ekarpena.

Azken horrek, prozesu honetan parte hartu ez badu ere, askotan helarazi digu kezka hori, komunikatzeko eta parte hartzeko hainbat bitartekoren bidez.

Aniztasun funtzionalaren inguruan, honako hausnarketa hauek jaso dira:

«Emakume gor askok ez dute salaketa jartzen, ez dutelako nola egin: komunikazioan ez dago irisgarritasunik, eta, beraz, ezin dezakete salatu. Nire ustez, oso egoera larria da».

(1. taldea, Arabako Gorra, 1. parte-hartzailea)

«Hain zuzen ere, hementxe hizpide dugun gaiaz kexatzen dira: irisgarritasunaz. Uste dut gai horren inguruan kexatu den bosgarren elkartea dela. Genero-indarkeriaren kasu batean irisgarritasunik ez egotea oso larria da». **(1. taldea, Eoncult, 1. parte-hartzailea)**

«Oztopo batzuk dauzkagu, eta, jakina, oztopo horiexek erakundeetan askoz ere okerragoak dira. Errehabilitaziora iristeko dugun zailtasuna ere salatu behar dugu: desgaitasunen bat dugun emakumeontzat askoz ere zailagoa da iristea. Gizarteak ez gaitu aitortzen. Adibidez, salatzera joaten gara, baina semearekin, gurasoekin edo tratu txar emaeleak diren senarrekin joaten gara salaketa jartzera. Norekin joan gaitzke? Hau da, azken batean, ez dira arazoa konpontzen ari. Desgaitasunen bat dugun emakumeok bikoitza sufritzen dugu. Oraindik ez gara irisgarritasunera iritsi. Zuek salatzeko orduan ikusten duzue arazoa. Gu ez gara salaketa jarri ahal izatera ere iritsi».

(1. taldea, Arabako Gorra, 1. parte-hartzailea)

«Izugarri kostatu zitzaidan gizarte-zerbitzuak haurrak autismoa zuela konturatzea; hau da, kudeatu ahal izateko zailtasuna duenez, mugarik ez zuela uste zuten (...). Guztia antolatuta edukitzen saiatzen zara, baina berarekin oso zaila da. Ulertu baino, "Ez, mutiko hau landu egin behar da..." esaten zuten, eta, kasketa harrapatzen zuenean, modu oldarkorrean heltzen edo hitz egiten zioten (...). Askotan gaizki egiten ari zarenetik egiten delako lan. Gizarte-zerbitzuen akatsa da hori ere (...). Haien inguruan eraikitzen diren aurreiritziak ere oso garrantzitsuak dira». **(C elkarriketatua)**

Emakume atzerritar, migratu, arrazalizatua... izateari buruz ere hausnartu da taldeetan eta elkarriketatetan, eta emakume batzuek indarkeria instituzionalaren egoerak kontatu dituzte, aurrerago ikusiko dugunez. Eskuragarri dauden arretara eta baliabideetara iristeari dagokionez, hasieratik bertatik dagoen zailtasuntzat hartzen dute interseksionalitate hori:

«Paperik gabe, ezin duzu ezer egin. Kontratu faltsuak egin zizkidaten. Sinesten ez nuenez, Immigrazioa joan nintzen. Hau esan zidaten: "Dagoeneko 10 aldiz egon beharko zenuke deportatuta" (...). Migratzaileentzat oso zaila da». **(B elkarrizketatua)**

«Emakume migratuekin ere gertatzen da. Adibidez, bi erakundetan gertatu zait arreta-emaileak nirekin oso zakarrak izatea. Are, herrialde honetan zertan ari nintzen galdetu zidan batek; neure buruari begiratzeko eta oso zahar nengoela ikusteko esan zidan, eta nire herrialdera itzul nendila, nire adinarekin ez nuelako lanik topatuko». **(1. taldea, Emakumeak Aniztasunean, 2. parte-hartzailea)**

Administrazio-egoera irregularrean dauden emakume atzerritarrek salaketa jartzera iristeko duten aukerari buruz,³⁹ Atzerritartasunari buruzko Legearen⁴⁰ eta Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko Lege Organikoaren⁴¹ arteko aliantza maltzurra gogorarazi behar dugu; izan ere, aliantza horren ondorioz, genero-indarkeria egiaztatzen duen epaia baldin badago bakarrik ez da emakume biktima eta haren seme-alabak kanporatzeko espedientea irekitzen, eta egoitza-baimena eta lan egiteko baimena eman dakioke bost urterako, baita seme-alabei ere. Alabaina, salaketaren ondoriozko epaiak ustezko erasotzailea absolbitzen badu edo salaketa artxibatzen bada, emakumea kanporatzeko espedientea eta agindua berrabiatzen dira⁴². Horrek administrazio-egoera irregularrean dauden emakume atzerritarren **eskubideak urratzen ditu**, eta salaketa jartzeko sarbidea oztopatzen.

*Flores en el asfalto*⁴³ txostenean jasotzen den bizi-istorio batean islatutakoa da horren adibidea. Bertan, ostalaritza-lokal batean jasandako laneko esplotazioa eta

- 39 Maria Naredo. Herramientas de derechos humanos para analizar la respuesta institucional frente a la violencia machista. Retos actuales en el 10º aniversario de la Ley Estatal de Violencia de Género. Marienea, 2014ko abenduaren 11.
- 40 2/2009 Lege Organikoa, abenduaren 11koa, Espainian dauden atzerritarren eskubideei eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duena.
- 41 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
- 42 Maria Naredok emandako datuen arabera, 2013an genero-indarkeriagatik jarritako salaketen % 53 artxibatu ziren, eta, 2011n, kasuen % 47,8an absolbitu zen ustezko erasotzailea. Emakume migratuek bikotean / aurreko bikotean izandako genero-indarkeriaren aurrean dauzkaten eskubideak. «Immigrazioa eta indarkeria matxista» jardunaldia, Donostia, 2012ko ekainaren 6a, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza eta Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurilaritza). Herramientas de derechos humanos para analizar la respuesta institucional frente a la violencia machista. Retos actuales en el 10º aniversario de la Ley Estatal de Violencia de Género. Marienea, 2014ko abenduaren 11.
- 43 Mugarik Gabe. *Flores en el asfalto. Causas e impactos de las violencias machistas en las vidas de mujeres víctimas y sobrevivientes* (2017: 241)

sexu-jazarpena salatzeren polizia-etxera joan zela kontatzen du emakume batek. Jabeak egoera erregularizatuko ziola hitzematen zion, baina ez zuen inoiz halakorik egin. Egoera hura izan arren, poliziak pasaporteak konfiskatu zion, eta, ezin izan zuenez berritu, prozedura zehatzailea hasi zen: horren ondorioz, kanporatzeko agindua eman zen.

Emakume parte-hartzaileek arreterak eta deribazio-ibilbideko zenbait **oztopo burokratiko** aipatu dituzte, eta horien ondorioz emakumeek berehalako arreterak eraginkorra jaso ezin dutela nabarmendu dute:

«Izapideen burokraziak emakume askok atzera egitea eragiten du».

(1. taldea, Eoncult, 1. parte-hartzailea)

«Bizitza duina eta indarkeriarik gabekoa edukitzeko eskubidea daukagu. Beraz, zerbait naturala izan beharko litzatekeela uste dut (...). Gainera, epaitegietara joan behar duzu, eta horrek deseroso sentiarazten zaitu: abokatua ordaintzeko baliabiderik duzun ez jakitea, legeak ezagutzen dituzun ala ez... (...). Burokraziaren zenbait paper egin behar ditut, eta laguntza eske joan... Nire bizitza oso desorekatuta dago, kontrolrik gabe. Gauzak erraztuko dituen zerbait behar da. Agian, emakume batzuk genero-indarkeria jasaten ari dira, baina, noski, salaketa jarri aurretik hori guztia pentsatzen dute, edo galdetu egiten digute, eta horretan sartuko zarela jakin bezain laster...».

(1. taldea, Berri Nann, 1. parte-hartzailea)

Oztopo burokratikoekin batera, **arreterak-sistemen arteko koordinazioan** dauden mugak nabarmentzen dira: bide arin eta errazak izan ordez, batzuetan hermetikoak izaten dira, geldoak, eta elkarren artean isolatuta egoten dira. Horrek babesgabetasun-tokian eta horma horiekiko konfrontazio-egoeran uzten ditu biktimak.

Talde berean, bigarren biktimizazioa ere kezka-iturri da. Zenbaitetan, «indarkeria instituzional» gisa izendatu dute, eta hainbat zapalketa-inguruabarrek zeharkatutako emakumeei gordinago eragiten diela adierazi dute. **Gaikuntza profesionala eskasa dela** eta tresnak falta direla adierazi dute, eta horrek emakume biktimen eskubideen estaldurari zuzenean eragiten diola.

«Nire ustez, berriro ez biktimizatzea nahi du elkarteak. Emakumeak galduta, blokeatuta ikusten ari garelako. Batzuetan, erakundeek ez dute laguntzeko adinako sentsibilitaterik edukitzen».

(1. taldea, Eoncult, 1. parte-hartzailea)

«Emakume horri sinesgarritasuna aitortzea nahi dugu, ez biktima gisa aitortzea, baizik eta indarkeria matxista jasan duen emakumetzat hartzea. Eta ez dezatela zalantzan jarri "baietz ala ezetz"; hau da, egiaztat har dezatela. Hori esaten ari bazara, horrela delako da, eta, zantzuak eta frogak badaude, ba ez dut ulertzen zergatik egin behar den aurka». (1. taldea, Emakumeak Aniztasunean, 1. parte-hartzailea)

Gai horri buruz, indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakumeen Bizirik elkarteak argitaratutako ondorioak azpimarratu ditzakegu, «*sistema judizialeko langileei batez ere baina ofiziozko abokatu batzuei ere ikuspegi feministadun prestakuntza eskatu behar zaiela*» jasotzen baitute⁴⁴.

Elkarrizketatu den emakumeetako batek esan duenez, Udalari indarkeria matxistaren arloko arretako profesional batzuek modu **paternalistan** tratatu zutela helarazi nahi diolako hartu du parte proiektu honetan, beste arrazoi batzuen artean.

«Eskoletan, gizarte-langileek, hezitzaileek, guzti-guztiek hartzen dute jarrera paternalista, eta, batzuetan, hor aurrean duten pertsonari entzutea da kontua: pertsona bat da, eta erreparazioa behar du. Edo, behintzat, lagundu egin behar zaio, ezta? Orduan, askotan esaten nuen “Nola arraio erreparatuko naiz eta nire autoestimua landu, etengabe birrintzen banaute?”. Eta gehien beldurtzen nauena zera da, benetan ez direla birrintze psikologiko horretaz ohartzen. Izan ere, hain modu zera erabiltzen dute, ez dakit nola esaten den, hain modu sotila erabiltzen dute... Orduan, asko jokutzen da rolekin. Hau da, pertsona ezindu gisa ikusten zaituztenean ematen dizuten rola, “zure onerako da” zentzuan egiten duten birrinketa. Hori guztia paternalista da (...). Uste dut enpatia asko duen jendeak egin beharko lukeela lan hor. Kontua ez da guztian arrazoa ematea, besterik gabe ulertzea baizik, laguntzea. Eta zalantzan ez jartzea, ezta epaitzea ere». (C elkarrizketatua)

«Niri [gizarte-langileak] zera esaten zidan, “Nik beteko dizkizut galdetegiak”. Eta, behin, hau esan nion: “Ikasketak dauzkatz; batxilergoa egin nuen, eta badakit irakurtzen eta idazten”. Gai honekin asaldatuta egoteak ez du esan nahi arkatx bat hartu eta nire izena idatzi ezin dudanik». (C elkarrizketatua)

Emakume berberak (eztabaida-talde baten aurreko lekukotasun batean ikusi dugunez) erakunde-ingurunean jasandako **bigarren biktimizazioa** aipatu du. Hala, jasotako tratuan eta joraketan pairatu zituen tratatu txarren eta sentikortasun-gabeziaren inguruko adierazpenak egin ditu:

«Adibidez, zera ikusten nuen, zerbaiti buruz hitz egin behar nuen aldiro etengabe zentratu behar nuela gertatutakoa kontatzen. Grabagailua hartu, hemen jarri eta “pom!” esateko gogoia ematen zuen. Ordu erdi hori kontatzen, eta kito. Eta, gainera, galdera beti zen berbera: “Kontatu zer gertatu zaizun”. Berrito itzultzen zinen istorio bera kontatzera (...). Ez dut zuek gaizki sentitzeko egiten:

44 Indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakumeen Bizirik elkarteak 2019ko azaroaren 12an Facebook sare sozialean argitaratu zuen, Bizirik Irtendako Emakumeen Elkartearen Estatuko III. Topaketan ostean (Gasteizen egin ziren, azaroaren 9an, 10ean eta 11n).

guztiok hobetzea da nire asmoa. Nola sentitu naizen eta nire ustez huts zerk egiten duen kontatzen ari naiz. Beste gauza batzuetan primerakoa izan da. Autolaguntza-talde batean, emakume bat hor jarri, eta "Ea, kontatu". Eta nik esan nuen ez nuela ezer kontatu nahi, une hartan inbadituta sentitu nintzelako. "Konta iezaguzu zer gertatu zaizun". Hain bortizki esan zidan, ezen ez baitaukat gertatu zaidana kontatzeko gogorik. Eta, are gutxiago, lehenik eta behin, ez dugulako hitzartu hemendik ez dela ezer aterako. Ez dut nahi».

(C elkarrizketatua)

Emakume horrek era berean esan du, ordea, arreta-ibilbidean benetan **lagundu** zioten eta arreta-zirkuituetatik igarotzea **erraztu** zioten profesionalekin ere topo egin zuela:

«Bai, laguntzak eduki ditut. Adibidez, hezitzaile batek bai, hark ulertzen ninduen». **(C elkarrizketatua)**

«Eremu judizialean, defendatu ninduen abokatuarekin topo egiteko zortea izan nuen; izan ere, oso inplikatura zegoen tratu txarren gaiarekin. Egia esan, gauzak aurpegira esateko ausardia zuen; gogorra zen, baina, askotan, esnarazi egiten zintuen. Jende mota hori ere oso ondo dago. Gaur da eguna edozein unetan eta inolako arazorik gabe deitu ahal diodana». **(C elkarrizketatua)**

Pare bat kasutan, hainbat profesionalek **ikuspegi interseksionaletik** lan egiteko prozeduren inguruan ezagutzarik ez dutela adierazi da; zehazki, kulturaren, jatorriaren eta etniaren aniztasunari dagokionez. Halaber, aurreiritziekin eta jarrera edo portaera etnozentristekin edo are arrazistekin ere borrokatu behar izan duten kasuak aipatu dituzte.

«Bestea gertatu zenean, ni iritsi berri nengoan; orduan, hara joan nintzen laguntza bila (...). Erakunde horretara joan nintzen, eta emakume hura... Ni istorioa kontatzen, eta ni bihurtu ninduen errudun, hemen egoteagatik errudun (...). Baina erakunde horretako pertsona horrek zapata zahar baten modura sentiarazi ninduen. Orduan, kontua ez da genero-indarkeria bakarrik, ezta... Nola esaten da? Desgaitasuna? Ezta desgaitasuna duten emakumeen kontrako indarkeria ere: emakume migratuok ere sufritzen dugu. Adibidez, nik "makilatxoa" daukat, Kolonbian esaten dugun moduan, jendeak ni gaizki tratatzeko, kalean gauzak esateko: "Emakume migratua izanda, belauniko garbitu beharko zenuke pisua". "Makilatxoa" daukat».

(1. taldea, Emakumeak Aniztasunean, 2. parte-hartzailea)

«Nire ustez, hori indarkeria sistemikoaren barruan sartzen da, argi eta garbi. Azkenik, kontuan hartzen ari dira administrazioaren jarrera arrazistak indarkeria sistemiko administratiboaren barruan kokatzen

direla. Eta nik, horrelako istorioak entzuten ditudanean, eskuak burura eramaten ditut, gizarte-laguntzaileak direlako, aholku ematen ari direnak direlako, ikasi dutenak haiek direla suposatzen delako, eta sentsibilitatea eta kontzientzia dauzkatela... Eta haiek jendea horrela tratatzen egotea, niretzat hori indarkeria da (...). Horregatik esan nahi dut gehiago dela indarkeria sistemiko administratiboa (...).

Hor bai, hor botere-gehiegikeria egon daiteke.

(1. taldea, Emakumeak Aniztasunean, 1. parte-hartzailea)

Taldeetan, halaber, ikuspegi interseksionaletik lan egitea aberasgarria dela nabarmendu dute, aurrerago ikusiko dugun moduan, horrela **balio erantsi gisa planteatu daitekeelako aniztasuna**. Elkarre parte-hartzaile gehienetan aplikatzen duten zerbait da, eta horrek agerian uzten du, beste behin ere, kolektibo horiek gizartearen errealitatean administrazio publikoa iristen ez den eremuetatik eragiteko gaitasuna dutela.

HARA! Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Planean ere adierazten denez, ikuspegi interseksionalak, pertsonak bereizita tratatu ezin daitezkeen baldintza ugari zeharkatuta daudelako ideari balioa emateaz gain, elkarri lotuta dauden faktoreak baitira horiek, begirada eta ikuspegiak aniztasunaren ikuspuntu ahalduztailetik eta subjektuen agentzia-gaitasunetik abiatuta irekitzea ahalbidetzen du. Hau da, interseksionalitatea politika publikoak eta lan-prozedurak garatzeko zailtasuntzat hartu ordez, politika eta prozedura horiek gaur egungo errealitateari egokituta diseinatuzko **aukeratzat** hartzea da kontua.

1.1.4. KALTE-ORDAIN EKONOMIKORAKO ESKUBIDEARI BURUZ

Eragindako kaltea erreparatzeko baliabide nagusietako bat da **kalte-ordain ekonomikoa jasotzeko eskubidea**.

Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntza emateari buruzko 35/1995 Legeak arautzen du genero-indarkeriaren biktimei eskubide hori.

Alabaina, betekizunen artean honako hau dago: emakumei eragindako lesioek ezintasun iraunkorra edo lan egiteko sei hiletik gorako ezintasuna ekarri behar dute. Gainera, nabarmentzekoa da lege horren eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko 1999ko eta 2011ko Legeen arteko bidegabekeria, zenbateko ekonomikoari, beste laguntza batzuekiko bateragarritasunari, epaian finkatutakoa gainditzei eta abarri dagokienez⁴⁵. Mugarik Gabe GGKEak aztertutako epai batean islatzen denez, kalte-ordainaren zenbatekoa ezartzeko orduan «*errepideko istripuen ondoriozko kalte-ordainetarako ezarrita dagoen baremoa*» hartzen da kontuan, «*adibide gisara, eta igoera txiki bat ezartzen zaio horri, delitua egiteko asmoa dagoelako*». Ikerketa

45 Mugarik Gabe. Feminicidio en Euskadi y Navarra, 2010-2015. Casos, tratamiento en prensa, y análisis de sentencias. 2016ko abendua.

horren ekarpenean jasotzen denez, «Aintzakotzat hartu beharko litzateke nahitasunak ez duela egitea pixka bat ezberdinagoa eta larriagoa egiten; hau da, nahitasunak oso ezberdina eta askoz ere larriagoa egiten du egitea. Hortaz, oro har, kalte-ordainaren gehikuntza handia izan beharko litzateke, eta ez arina».

Taldeetan, agerian geratu da ez dela eskubide hori ezagutzen, parte-hartzaile batek ere ez baitu identifikatu; are, horretaz mintzatu direnek ere bestelako diru-laguntza batzuk aipatu dituzte, nolabaiteko nahasmendua erakutsiz:

«Adibidez, amari ez zioten ezertxo ere ordaindu, jada lanik egiten ez zuen emakumea zela esateagatik. Zein zerikusi dauka andre batek lan egiteak edo lan egiteko adinean egoteak zenbateko bat edo laguntza bat edo dena delakoa jasotzearekin?»

(1. taldea, Eoncult, 2. parte-hartzailea)

Eztabaida-taldeetan datu horiek zuzenean inork aipatu ez baditu ere, eta **kalte-ordainak biktimen eskubidetzat** hartu behar diren arren, gure gizarteak erreparazioa gauzatzeko duen modua (ekonomikoa) kritikatu dute:

«Memoriaren, erreparazioaren eta errekupeazioaren gaia... pff... Hor, diru-kontuetan sartzen gara beti. Erreparazioa beti egin nahi da, ez dakit administrazioak edo nork, baina beti egin nahi da diruarekin. Eta ez dakit nola erreparatu ahal diguten hain min handia (...). Gure herrialdeetan, indarkeriaren biktimei galdu duten lurragatik ematen zaie kalte-ordaina. Edo, auto batek harrapatzen bazaitu, ba, agian, hor ere kalte-ordaina ematen dizute. Edo, oin bat galdu baduzu, ez dizute oina berriz jartzen. Mundu kapitalista honetan, diruarekin egiten da beti». (1. taldea, Emakumeak Aniztasunean, 1. parte-hartzailea)

Idea horretatik ondoriozta dezakegunaren arabera, erreparazio integral eta eraginkor batek ekonomikoaz bestelako bideak hartu beharko lituzke. Lehen adierazi dugun bezalaxe, emakume batzuek **arreta** psikologikoen edo bidelaguntzek **jarraitzeko premia** nabarmendu dute. Justizia duin eta erreparatzaile batek ez du konpentsazio ekonomikoa baztertzen: bestelako formulekin osatzea eskatzen du.⁴⁶

Beste alde batetik, ordea, interesgarria da erreparazio ekonomikoari aipamenik egin ez izana edo, are, hori arbuia izana. Bi hipotesik azal dezakete hori: batetik, profesionalak ez dute eskubide horri buruzko informaziorik, eta, bestetik, emakumeek uko egiten diote sistematikoki, konpentsazio ekonomikoa eskatuz gero sinetsiko ez dietela uste dutelako. Hots, beren lekukotza dirua jasotzeko mekanismotzat hartuko ote duten beldur dira.

46 Amandine Fulchiron, Itziar Mujika Chao, Marina Gallego Zapata, Nadia López Ruiz, Sara Hernández Perez, Irantzu Mendia Azkue, Gloria Guzmán Orellana, Iker Zirion Landaluze. Género y justicia transicional. Movimientos de mujeres contra la impunidad. (2017:105).

1.1.5 ERREPARAZIORAKO BIDE BERRIEI BEGIRA

Beste esperientzia batzuei begiratu gero, nabarmentzekoa da Bolivian indarkeria matxistaren emakume biktimei eta hortik bizirik ateratako ei arretea ematen dien Mujeres Creando talde feministak egindako bidea. Emakume horien benetako erreparazio-prozesuak planifikatzeko orduan, **sormenari** helden diote, eta **ikuspegi feminista** txertatzen dute arretan, ikuspegi tradizionalaren (patriarkalaren) aurkakoa baita. Hizpide duten sormenarekin, **emakumeen benetako premiak** lehenesteko asmoa dago. Galdera erraz bat dago oinarrian: **«Zer da zuk nahi duzun hori?»**. Azaldu dutenez, emakume askok ez dute beren burua prest ikusten erasotzaileari legezko zigor-neurri bat ezartzearekin edo kalte-ordain ekonomikoa jasotzearekin bakarrik: askotan, bestelako kontuak nahi izaten dituzte; eragindako mina **aitortzea**, adibidez.

Taldeetako parte-hartzaile batzuek ere bi ideia horiek identifikatu dituzte; hots, tresna eta metodologia sortzaileagoetatik abiatzekoa eta emakumei zer nahi duten entzutekoa.

«Orduan, dirua kentzeko oso sortzaileak izan behar dugula uste dut, eta erreparazioa egoteko zer eska daitekeen begiratu; hau da, emakume horrentzako benetako erreparazioa egon dadin».

(1. taldea, Emakumeak Aniztasunean, 1. parte-hartzailea)

«Baina bai sortzaileagoak izatea; beharbada, ez dakit, berak erreparatuta ikusiko du bere burua. Agian, berarekin gehiago hitz egitea».

(1. taldea, Emakumeak Aniztasunean, 1. parte-hartzailea)

«Talde-mailan, beste dimentsio bat hartzen du. Eta, erreparazio-ariketa modura, adibidez, iaz argitara atera genituen emakume izate hutsagatik jasan ditzakegun gauza edo indarkeria horiek guztiak. Agerian jartzea (...). Guztiak idazten zuten, kutxatxo batean sartu, eta gero guztia erakutsi zen. Anonimoa zen. Eta emakume izate hutsagatik aurrez aurre dauzkagun indarkeriak eta desberdinkeriak ziren».

(2. taldea, Sartu, 1. parte-hartzailea)

Gero eta ikerketa gehiagok azpimarratzen dute **emakumeen ahotsak lehenengo pertsonan entzutea** oso garrantzitsua dela, Mugarik Gabe GGKEaren Flores en el asfalto argitalpenak jasotzen duen moduan: «Haien lekukotzak irakurtzea indarkeria matxistek dakarten izugarrikeriari eta indarkeria horiek emakume horien bizitzetan eragiten dituzten inpaktuei begiratzea da, emakumeen gorputzaren kontra egiten duten askotariko indarkeriei so egitea. Emakume borrokalaria eta ausart horiek abiarazten dituzten estrategiak irakurtzea ere bada. Askotan, bizipenetan eta prozesuetan laguntzen dieten beste emakume batzuk eta talde feministak bilatzen dituzte beren bidean, eta agertu ere agertzen dira. Halaber, bizitako istorioa gainditzeko asmoz baina baita ahotsa goratuz arrakalak irekitzeko asmoz ere subjektu aktibo nola bihurtzen diren ikustea da. Gainera, jatorrian bortitza den sistema batean egiten

dute hori, heteropatriarkatuan alegia, zeinak, aldi berean, adierazpen zehatzak egiten dituen kapitalismoarekin, fundamentalismo erlijiosoarekin, arrazismoarekin eta abarrekin aliatzen denean. Honako hau galdetzen diogu geure buruari: Emakumeen ahots horiek non geratzen dira gure memoria sozial kolektiboan? Non geratzen dira kontakizun horiek, indarkeria matxistak zer diren ulertzeko? Nola kontatuko dira etorkizunean?» (2017: 9).

lido horretan, erreparazioa **salaketa- eta ikusgarritasun-prozesutzat** jotzen da, non emakumeak diren benetan erreparatuta nola senti daitezkeen dakitenak. Ideia bera jasotzen da indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakumeen Bizirik taldeak (Gasteiz) 2018ko topaketean ostean argitaratutako ondorioetan:

«Emakumeontzat, oso garrantzitsua da gure istorioak kontatzeko elkartzea, gutariko asko bi aldiz biktimizatuta sentitzen baikara eremu judizial eta polizialeko jarduera txarren ondorioz. Halaber, tratu txarren emaleek prekaritate ekonomikoan mantentzen gaituzte askotan, mantenu-pentsioa edo hipotekaren zatia ordaintzeari uko egiten diotelako, eta, horrekin, babesgabetasun ekonomikoa gaineratzen zaie laneko baldintza prekarioei. Topaketa horiek duten garrantziaz jakitun, bai eta demandak bateratzeko xedez manifestatzeak duen garrantziaz jakitun ere, datorren urtean Zaragozan elkartzeko lekukoa uzten dugu».⁴⁷

Beste ondorio batek indarkeria matxistari buruzko **galderen ikuspegi-aldaketarekin** dauka zerikusia: «Politika publikoak erasotzaileei begira jartzeko ordua dela aldarrikatzen dugu, haiek erantzun diezaietela galderei... Zergatik ematen dituzue tratu txarrak? Zergatik umiliatzen duzue? Zergatik sentitzen duzu emakumeak zauritu, kolpatu eta erasotzeko eskubidea? Nork eman zizun eskubide hori? Zergatik ez duzu uzten, hainbesteko mina ematen badizu edo hain kasu gutxi egiten badizu? Dagokien erantzukizuna itzultzea litzateke hori, emakumeak zalantzan jarri ordez; izan ere, beren indarkeriaren ondorioak jasateaz gain, senideen, lagunaren eta are laguntza-sistemen zalantzei egin behar izaten diete aurre, emakumeak egiten baitituzte errudun, profesionalak egokitzen jokatzen unean banandu ez izanagatik».

Ikus daitekeenez, lehen hizpide izan ditugun zirkuitu burokratikoak oztopoa izaten dira gaur egungo arazuko esparruak eta esparru programatikoak jasotzen dituzten eta emakumeek aldarrikatzen dituzten **justizia eta erreparazioa** lortzeko. Bizirik Irtendako Emakumeen Elkartearen Estatuko III. Topaketetan, adingabeen zaintza-erloto jarduketari buruz ere hausnartu zen. Bada, hainbat lekukotzak adierazi zuten, gehiago babesten dira erasotzaileen nahiak, haiekin egon nahi ez duten adingabeenak baino, nahiz eta sexu-abusuak egon, eta, batez ere, nerabeak amen kontra jartzeko erabiltzen dira.

47 Indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakumeen Bizirik elkarteak 2019ko azaroaren 12an Facebook sare sozialean argitaratu zuen, Bizirik Irtendako Emakumeen Elkartearen Estatuko III. Topaketean ostean (Gasteizen egin ziren, azaroaren 9an, 10ean eta 11n). .

7

Parte-hartzaile batzuek salaketa jarri ondoren seme-alabek izandako babesgabetasunaren inguruko bizipenak kontatu dituzte:

«Mutikoarentzako urruntze-agindua eskatu genuen, eta ezetz esan zidaten, haurra 24 orduz egongo zela nirekin. Ez, barkatu, haur-eskolan edo eskolan badago, ez dago 24 orduz nirekin; nik ere lan egiten dut. Hau da, haurra ere babestuko duen urruntze-agindua.

Eta nik eskatu behar izan nuen; tematu egin nintzen».

(1. taldea, Eoncult, 2. parte-hartzailea)

«Alabak bazekien, eta nik eskolara laguntzen nion, berez niri eman zidatelako urruntze-agindua, ez berari. Neskatoari ezin izan zioten urruntze-agindua eman. Orduan, hark egin zezakeenaren beldur nintzen...». **(A elkarrizketatua)**

1.2. INDARKERIA MATXISTAK GASTEIZEN UTZITAKO BIKTIMAK ETA HORTIK BIZIRIK IRTENDA KOAK AITORTZEA ETA HAIEN MEMORIA BERRESKURATZEA

1.2.1. EMAKUMEEN ETA INDARKERIA MATXISTAREN IKUSEZINTASUN SOZIALA

Aurreko atalean ikusi dugun bezalaxe, elkarrizketetan eta taldeetan parte hartu duten emakumeek **indarkeria matxistaren emakume biktimezako arretari buruzko hainbat ideia eman dituzte, erreparazioari** dagokionez. Elementu garrantzitsu bat da **biktimen memoria berreskuratzea**. Gure gizartean, ugaritzen ari dira bidegabekeria jakin batzuen biktimen memoria aitortzen eta ikusarazten duten **esperientziak**. Gatazka zehatzez ari gara, ordea; adibidez, Espainiako Gerra Zibilean exekutatuta eta desagertuta ziren pertsonenaz edo ETA erakundeak hildako eta kaltetutako pertsonenaz⁴⁸.

Taldeetako parte-hartzaileek errazago identifikatu dituzte kausa horiekin zerikusia daukaten memoria-ekintzak:

«Uste dut frankismoaren biktimen inguruan oso argi dugula zer-nolako krudelkeria egon zen, baina, orain, gurekin edo emakume biktimekin egin dena erakusteko prozesuan gaude. Hau da, orain arte hain ezkatututa zegoen errealitate hori... Uste dut ezin daitekeela aitortzarik egin, errealitatea zein den jakin arte». (2. taldea, Sidalava, 2. parte-hartzailea)

Dagoeneko ez dauden edo indarkeria jakin batetik bizirik irtendakoen memoriarako toki bat (fisikoa edo ez) edukitzea funtsezkoa da **haien eta gizarte osoaren erreparaziorako**. Miren Llona ikertzaile feministaren esanetan, frankismoko hobi komunak irekitzeko orduan egin diren aurrerapenei esker, «*duela gutxiko historiaren gainean zegoen isiltasun-ituna hautsi*» ahal izan da.⁴⁹ Indarkeria matxistaren biktimak izendatzen eta aitortzen dituen toki edo esperientziarik ez edukitzeak biktimak ikusezin egiten ditu, eta haien aitortza galarazten. Ondorioz, erreparaziorako eskubideak lehengoratzeari eragozten da, eta sozialki barneratuta dauzkagun botere-logiketan **aldaketak txertatzea** zailzen. «*Gure historia eduki*

48 Gasteizko Udalaren Bizikidetzeta eta Aniztasunerako Planak (2018-2020) memoriaren, egiaren eta justiziaren arloan jarduteko esparrutzat hartzen ditu bi egitate horiek. Honako hau jasotzen du:

«*Euskadin, eta, zehatzago, Gasteizen, oraindik ez da bi indarkeria motaren inguruko bizikidetzazutaberik eraiki, eta ez dira garatu biktimen beharrezko memoria eta aitortza: frankismoaz eta indarkeria terroristaz ari gara, hain zuzen ere*». (2018:16).

49 Miren Llona. Memoria histórica y feminismo. Granadako jardunaldi feministak, 2009ko abendua.

gabe, beste batzuek ezarritako aginduak errepikatzen jarraitzen dugu, eta historian zehar min eman diguten egiturak, ideologiak eta pertsonaiak goresten».⁵⁰

Belaunaldiz belaunaldi isiltasuna transmititzeak eta indarkeriak eragindako traumen kontakizuna ez egiteak eragin negatiboa dauka etorkizuneko belaunaldiengan, eta hainbat ondorio izan ditzake: polarizazioa, lotsa, biktimismoa, mendekua eta boterea salatzeke beldurra⁵¹.

«Ingurune batzuetan, indarkeria hori gertatzen ari da, ez delako ahozko hizkuntzaren bidez landu; orduan, bada, normalizatu egiten da. Beraz, indarkeriaren kutsadura-fokua daukagu berriro».

(C elkarrizketatua)

Gasteizen memoria egiteko adierazpenei edo tokiei buruz, eztabaida-taldeetako parte-hartzaileek adierazi dute indarkeria matxista ez dela behar bezala aitortzen ari eta indarkeria horren benetako handitasunari nahiz biztanleriaren zati handi bati eragindako kalte izugarriei ez zaiela begiratzen. Hots, parte-hartzaileek ez dute sentitzen erakunde- zein gizarte-mailan dagoeneko kontzientziazio eta sensibilizazio handiagoa duten indarkeriei ematen zaien **balio edo aitortza bera** ematen zaionik indarkeria matxistari.

«Ez dut ezagutzen ezer, ezer sinbolikorik... Hau da, egunkarietan datuak, datuak, datuak eta datuak bakarrik agertzen dira, baina datu bat gehiago besterik ez dira (...). Batek ere ez du esaten zerbait oso-oso larria gertatzen ari denik... Ondo legoke toki bat edukitzea. Badirudi guztientzat egiten dela, emakumeentzat izan ezik, azken tokian gaudela...» (2. taldea, Sartu, 2. parte-hartzailea)

«Badago aitortzarik? Ez. Badago tokirik? Ez»
(1. taldea, Eoncult, 1. parte-hartzailea)

Talde batean, ados jarri dira esatean Gasteizen nolabaiteko jarduerak topa daitezkeela hainbat une historikotako emakumeen lana aitortzen eta gogoratzen dutenak eta, are, indarkeria matxistaren biktimen eta hortik bizirik irtendakoen memoria berreskuratzerara bideratuta daudenak (hala nola, erakusketak, hitzaldiak, lantegiak, jarduerak...).

Hala ere, taldeak era berean esan du jarduera asko denboran mugatuak izaten direla, unean-uneakoak izaten direla, eremu publikoan ez direla ikusten eta askotan ez dutela gizarte osora iristeko moduko zabalkunderik izaten. Talde horretako

50 Amandine Fulchiron, Itziar Mujika Chao, Marina Gallego Zapata, Nadia López Ruiz, Sara Hernández Perez, Irantzu Mendia Azkue, Gloria Guzmán Orellana, Iker Zirion Landaluze. Género y justicia transicional. Movimientos de mujeres contra la impunidad. (2017:95).

51 Clara Valverde Gefaell. Desenterrar las palabras. Transmisión generacional del trauma de la violencia política del siglo XX en el Estado español. (2014).

parte-hartzaileek **gune iraunkor eta ikusgarria** behar dela planteatu dute, eta **prozesu parte-hartzaile baten uzta** izan behar duela.

«Nire ustez, ez dago elementurik edo gunerik. Badakit orain, oker ez banago, emakumeei buruzko erakusketa bat egingo dutela, indarkeria matxistaren emakume biktimen kontakizunak bilduko dituen, eta denboratxo bat iraungo duela, baina, beharbada, zerbait iraunkorra edo egonkorra falta da hirian». **(2. taldea, Sartu, 1. parte-hartzailea)**

«Eta bai, super garrantzitsuak dira, e! Egiten den gauzatxo bakoitza, martxoak 3 edo erakusketa ibiltariak, guztiak gehitzen du.

Baina zerbait egonkorragoa egon dadila».

(2. taldea, Sartu, 1. parte-hartzailea)

«Askotan, gauza asko egiten direlako sentsazioa daukat, baina adi egon behar duzula edo bestela ez zarela enteratzen. Hau da, edo jakiteko gogoia daukazu, Instagram-ekin edo Facebook-ekin zaudelako, edo ez dakit zeren orrialdea begiratzen ari zarelako, edo zaizu iristen.

A, ba ni ez naiz enteratu elkarretaratze hori egingo zenik... Ba, niri, hiru tokitatik iritsi zait. Jakina, oso garrantzitsua da ahots hori oso zeharkakoa izatea, nire amari benetan iritsiko zaiona eta haur-eskolan dagoen mutiko bati iritsiko zaiona».

(2. taldea, Sartu, 2. parte-hartzailea)

Dena dela, harrigarriki, gehien-gehienetan, taldeetan nahiz elkarrizketa sakonetan, emakume guztiak ez dute izaten talde feministek eta emakumeen taldeek edo agintaritzak publikoek egiten dituzten ekintzen berri; adibidez, hilketa edo eraso matxista bakoitzaren aurrean arbuioa erakusteko elkarretaratzeen berri, hildako emakumeen omenezko oroitzapen-ekitaldien berri...

ELKARRIZKETATZAILEA: «Herritarren mailan, kaleko mailan, ezagutzen dituzue adibidez hilketa bat gertatzen denean protesta egiteko edo ohiko tratu txarrak salatzeko egiten diren ekimenak edo ekintzak?

Kaleko erantzunak, jarduerak, ekintzak...».

«Ez».

ELKARRIZKETATZAILEA: «Ez duzu horien berri?».

«Ez, ez. Badaude, ala?»

ELKARRIZKETATZAILEA: «Bai».

«Bai? (Harridura handia agertu du) Ez nekien?».

(A elkarrizketatua)

«Ez dut parte hartu, hau da, ez dut parte hartu... Egia esan, hori, zer?»

ELKARRIZKETATZAILEA: «Edo ezagutzen duzun ekimenik, ez parte hartzea, baina indarkeriaren inguruan, nire hirian dagoena, nolabait...

Ezagutzen duzu ekimenik?»

«Ez, ez dut ezagutzen, hau da, zehazki, ez dut ezagutzen [erasoaren ondoren] jarraitzen duen ekimenik» (C elkarrizketatua)

Askotan, ordea, **martxoaren 8aren** inguruko manifestazioa eta ekintzak aipatu dira; bereziki, azken urteetakoak. Eta ez unean-uneko zerbait bezala: elkarteetan prozesu gisa lantzeko aitzakia ontzat hartzen dituzte. Horrek, bada, beste behin ere erakusten du egun horren eta eguna inguratzen duen guztiaren izaera estrategikoa.

«Sartu elkarteetan (...), egun batzuen harira (adibidez, martxoak 8, azaroak 25 eta maiatzak 17), lantokietan lantzeko sentsibilizazio- eta prebentzio-ekintzak prestatzen saiatzen gara, eta, hain justu ere, nik talde-mailan lantzen dut, emakumez eta gizonaz osaturiko talde mistoetan, prestakuntza sozio-hezitzailean».

(2. taldea, Sartu, 1. parte-hartzailea)

«Martxoaren 8ko manifestazioak emakume guztiei babesa erakusteko lagundu dezake. Etortzen direnei, parte hartzera animatzen direnei».

(B elkarrizketatua)

1.2.2 INDARKERIA MATXISTAK EMAKUMEEN GAINEAN DUEN KARGA SINBOLIKOAREN INPAKTUA

Hedabideen eraginak⁵² inpaktu handia dauka indarkeria matxistaren inguruan sortzen den dimentsio sinbolikoan. Hedabideek, eragin horren ondorioz, **agente aliatu edo berbiktimatzaile gisa**⁵³ aritzeko gaitasuna daukate. Batzuetan, egia eta salaketa publikoa ondo hedatzen direnean, gizarteak zenbait bidegabekeriaren berria jasotzen du, eta horien aurrean erantzuten du, eta justizia eskatzen⁵⁴. Bitarteko gisa, egia kontatzea bera ere erreparatzailea izan daiteke; beti ere, protagonistak hala egin nahi duenean. Emakume batzuek beste emakume batzuei laguntzeko balio duen **ahizpatasun-estrategiatzat** hartzen dute.

Dena dela, esaten ari ginen moduan, hedapen mediatikoak indarkeria matxistaren errealtatea desitxuratzen du askotan, **erruduntzat biktima** jotzen baitute eta erasotzailea zenbait alderditan zurrizten, edota egitura patriarkalak botere-harremanei eusteko zabaltzen dituen mekanismoak (adibidez, maitasun erromantikoaren mitoa eta genero-estereotipoak, etnia, aniztasun funtzionala eta sexu-aniztasuna) alboratzen

52 Ikusi «Genero-indarkeriako delituen biktimen intimitaterako eskubidea. Biktimen anonimotasunerako eskubidea». Emakunde. Begira, publikitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordea. Vitoria-Gasteiz. 2018.

53 Mugarik Gabe. *Flores en el asfalto. Causas e impactos de las violencias machistas en las vidas de mujeres víctimas y sobrevivientes* (2017: 223).

54 Mugarik Gabe erakundearen *Flores en el asfalto. Causas e impactos de las violencias machistas en las vidas de mujeres víctimas y sobrevivientes* argitalpenean, horri buruzko hainbat kasu jasotzen dira. (2017: 223).

baitituzte. Sarritan, salaketa faltsuei heltzen diete, arazoaren fokua desbideratu eta garrantzirik gabeko datu horretan zentratzeko. Are, nahiz eta kontraesankorra izan, eraildako emakumeek aurretik salaketarik jarri ez izana ere aipatzen dute, haien erasotzaileak salatzen «erantzukizuna» hartu ez izanagatik errudun egiteko.

Analisiaren lehenengo blokean ikusi dugunez, emakumeen egoera eta haien erreparazio-prozesuetan askotariko ondorioak izaten dituen tresna da salaketa. Kasu bakoitza ezberdina da, baina **erabakiak hartzeko erritmoak** ere, eta norberaren inplikazioak eta inguruabarrak ere aintzat hartu behar dira. Hori dela-eta, emakume askok beste erabaki batzuk hartzen dituzte bizirik irauteko edo jasandako indarkeriatik irteten saiatzeko, eta hedabideek ikuspegi feministarik gabe jorratzen dituzte kontu horiek: egitatei buruzko kontaketetan, ez dituzte egoera horiek aintzat hartzen.

Zentzu horretan, salaketen inguruko mito horiek indarkeria matxistaren biktimen **sinesgarritasuna** murriztu dezakete, baina ez hainbeste beste delitu batzuen biktimena, elkarrizketatu honek hausnartu duen bezala:

«Bada, eraso bortitz bat jasotzen duzunean, publiko egin ahal izatea, **sinesgarritasunez har dezatela, eta ez dezatela pentsa histerikoa zarenik; besterik gabe, hori jasan duzulako, eta horren berri eman dezakezulako... Eta baietz, egia dela pentsa dezatela, eta tratatu».**

(C elkarrizketatua)

Komunikabideen tratamenduari buruz, emakume berberak hausnarketa hau egin du:

«Uste dut gaizki tratatzen dela; izan ere, oso sentsazionalista izan arren, berririo ere emakumea zalantzan jartzen duen zatia dator gero. Adibidez, tratua ere txarra da, guztiz matxista, azkenean emakumea **jotzen delako erruduntzat».** **(C elkarrizketatua)**

Hedabide jakin batzuetan, ohiko baliabidea izaten da auzokideei edo erasotzailearen hurbileko jendeari elkarrizketak egitea. Horrelakoetan, erasotzailea pertsona lasaia eta ondo hezia dela esaten dute, eta indarkeriazko ekintzarekin harrিতuta agertzen dira. Ez gara komunikabideek gizartearen iruditerietan dituzten ondorio zehatzak aztertzerantz sartuko, baina zalantzarik gabe esan dezakegu sozializazioan eta eraikuntza kulturean eragiten duten **agente sozializatzaileak** direla eta, hortaz, sekulako erantzukizuna dutela biktimen erreparaziorako eta aitortzarako tresnak izateko orduan. Hurrengo lekukotzetan, haien **inguruak** indarkeria matxistaren inguruan emandako **erantzunari** buruzko gako batzuk ematen dituzte parte-hartzaileak:

«“Zerbait egingo zenuen” dioen erruduntasun hori ez da banakakoa bakarrik; askotan, “zerbait egingo zuen” hori... Minigonarekin zindoazelako bortxatu zaituztela iradokitzen dute, ezta?».

(2. taldea, Sartu, 2. parte-hartzailea)

«Nire auzoan, senarrek ondo jipoitutako emakume adindu identifikatuak daude, eta ez da inoiz salaketarik egon. Esan nahi dut auzoan jende guztiak ezagutzen dituela tratu txarrak jaso dituzten emakumeak, adinduak, senarrak hil arte horrela egon direnak. Baina, luzarago bizitzen garenez, ba... Emakume horiek bizirik atera dira».

(2. taldea, Sartu, 2. parte-hartzailea)

«Ea, denetik egon da. Bai, familian eduki dut laguntzarik; adibidez, nire ahizparekin. Baina beste aldea ere eduki dut. Familian badago rol hori duen bat, tratu txar emalearena, eta nire kontra egin zuen. Hau da, bi aldeak eduki ditut. Eta, gainera, nigandik oso hurbil bizi da, ondoko atean». **(C elkarrizketatua)**

«Nik bai, badaukat senideren bat... Nire bikotekide ohiak, itxuraz, rol ona zuen. Eta iritsi eta "Ez, seguru errua M.rena dela" bezalako komentarioak entzun izan ditut. Errua nirea, ezta? Aurrekoan ere komentatu nuen. Nola liteke hori zalantzan jartzea? Gaur gaurkoz, nola jarri dezakete zalantzan. Ez duzu nire iritziarekin zertan bat egin, baina ez nazazu zalantzan jarri. Nire hitza guztiz baliogabetzen ari zara».

(C elkarrizketatua)

«Bai, noski. Hitz egiten dugu, eta bizitzak aurrera jarraitzen duela esaten didate, ezin naitekeela egon... Zu ere ezin zaitezke horrela egon gertatu zen zerbaitengatik; gainera, berak ere bilatu zuen. Zuk ez zeneukan kalte egiteko asmorik, ez daukazu norbaiti kalte egiteko moduko bihotz txarrik. Berak bere bulkadengatik eta bere gauzengatik, bada, begira, hori bilatu zuen; zer egingo diogu». [Erasotzaileari ezarritako urruntze-aginduari buruz]. **(A elkarrizketatua)**

«Alabaren aita beti egon da hor. Beti, beti. Oso zintzoa da gurekin, bere alabarekin eta nire semearekin. Bera da nire euskarri handiena, beti. Bera da». **(A elkarrizketatua)**

Barne-mailan, eztabaida-taldeetan nahiz elkarrizketetan parte hartu duten emakumeek indarkeria matxistaren **inpaktu emozionala** identifikatu dute. Emakumeek islatutako sentimendu nagusiak **beldurraren** ingurukoak dira, baina, bereziki, **erruduntasunaren** ingurukoak. Lekukotza hauetan, emozio horiek emakumeen mugimendu-askatasuna mugatzen duen kontrol-mekanismo⁵⁵ gisa funtzionatzen dutela egiazta dezakegu:

«Nire alaba eta amatxo hilko zirela esaten zuen. Orduan, beldurra eman zidan, eta pentsatu nuen: "Eta betetzen badu, zer?". Sekulakoa zen. Nire etxeraino joaten zen, tinbrea jotzen zuen, eta kanpoan

55 Liliana Mizrahi. Las mujeres y la culpa. Herederas de una moral inquisidora. (2003:50).

geratzen zen, tinbrea jotzen. Eta esan nuen ezetz, tipo horrek ezin zuela... Egun batean haizeak joko du, eta benetan egingo dio zerbait nire alabari; hau da, beldur ikaragarria nuen alabarengatik».

(A elkarrizketatua)

«Uste dut beldur hori emakumeek gorde egiten dutela, beldur direlako, eta mehatxuengatik. "Salaketa jartzen badidazu, senideren bat hilko dut". Uste dut emakume batzuk horregatik isiltzen direla».

(A elkarrizketatua)

«Nik, errua sentitzeaz gain, zera sentitzen dut... Batzuetan, zaugarri sentitzen naiz. Hau da, barruan zerbait hautsi izan balidate bezala da. Lan asko eginagatik ere, ez zara errekuperatzen».

(C elkarrizketatua)

Ematen duenez, erruduntasuna da gehien irauten duen sentimenduetako bat, eta egon litezkeen ondorioez galdetzen denean, elkarrizketa guztietan agertzen da. Jasandako indarkerian eduki ditugun inplikazioa eta papera bera **zalantzan jartzea** eragiten digu. Egoera bortitza eragin izanaren sentipenetik hasi eta egoera hori gertatzea ahalbidetu dugula sentitu arte, biktimaren edo bizirik irtendakoaren ikuspegia bera galduz eta geure burua nolabaiteko erantzukizun-tokian jarritz, eta ez da horrelakorik gertatzen beste indarkeria edo delitu batzuen biktima garenean.

«Orain, horrek errudun sentiarazten nau. Orain, erruduna naizela uste dut, erruduna naizela, ez nukeelako hori egin beharko. Burua hausten dut hori pentsatzen (...). Ba bai, hau da, horrela sentitzen naiz. Ez dakit; beti ari naiz pentsatzen, buruari bueltaka pentsatzen, zergatik, zergatik ez nintzen kontuz ibili, ni 41 urteko emakumea eta hura 22 urteko gizona izanik. Zer gertatu zitzaidan, zergatik egin nuen hain gaizki, zergatik egin nituen gauzak hain gaizki. Orain mutil horrek han egon behar du; hau da, demanda bat jarri nion, eta oso kontu latzak dira hauek bere bizitzarako. Bere bizitzarako, eta nire bizitzarako, hemendik aurrera. Gauza horiek... Erruduna ni naizela sentitzen dut, eta ez dakit zergatik. Eta esaten dut: "Hori ez zatekeen gertatu beharko; kontuz ibili beharko nukeen". Hori gertatzen zait. Horixe gertatzen zait orain (...). Errua nirea da, haur batekin hasteagatik. Eskarmentudun emakumea izanik, zergatik egiten nuen hori? Hori baino askoz ere gehiago. Horixe da sentitzen dudana erruduntasuna».

(A elkarrizketatua)

«Uste dut hemen erruduntasuna emakume guztiok oso barneratuta dugula oro har eta landu beharreko zerbait dela. Eta, hain zuzen ere, indarkeria matxistaren emakume biktimek are gehiago. Uste dut erruduntasuna asko landu behar dela emakume horiekin, zeina joan-etorrian ibiltzen den. Gertatu ahal izan zaizunaren gaineko erantzukizunik ez duzula jakin arren, arindu dezakeen zerbait izan

daiteke. Ez zara zu zaren bezalakoa izateagatik, edo hezteko moduagatik, edo... Ez da zure istorioa».

(2. taldea, Sartu, 1. parte-hartzailea)

«Ez dakit... Etiketa hau daukat: "Egurra eman ahal didazue", ezta?».

(C elkarrizketatua)

Beldurra bezala, erruduntasuna ere emakumeak **kontrolatzeko mekanismotzat** erabiltzen da. Elkarrizketatu bat amatasunaren eta ama-rolaren inguruko erruduntasun-sentimenduak dauzkan ondorioez mintzatu da:

«Bera, ba, nire izena zentzu guztietan zikintzen saiatu zen, eta, hasieran, noski, erruduntasun-sentsazio hori neukan (...). Lehenengo semea 33 urterekin eduki nuen, eta, beno, esan dezagun ordura arte ikasketak, lana, bidaiak... nituela bizitzan. Eta, premia berezi konplexuak dauzkan pertsona bat etortzen zaizu, eta, batzuetan, guztia gehiegizkoa zela esaten nuen, ezin nuela gehiago. Orduan, horren kontra hasten zen, eta nire seme-alabak maite ez nituela pentsarazi zidaten (...). Hori gaizki senti zaitezten erabiltzea ere...

Hasieran, esaten nuen nik ez nuela esan ez nuenik ama izan nahi, baina hori sentiarazi zidaten».

(C elkarrizketatua)

Ikusi dugun moduan, emakume batzuek adierazi dute indarkeriaren bidez bizitako sentimenduek eta emozioek indarkeria-egoera amaitu ondoren ere irauten dutela. Emakume honen komentarioa interesgarria da: **belaunaldi berrietan ere indarkeria matxista errepikatzen dela** ikusten du, eta etengabe gogorarazten dio berak bizi izan zuena eta ahazten saiatzen dena:

«Iragana ez gogoratzen saiatzen naiz. Zertarako sufritu? Nire alabak gaizki ikusteak bakarrik mintzen nau, beren senarrekin sufritzeak. Nire alabengan ere ikusteak zauria inoiz ez ixtea eragiten du, hor egotea».

(B elkarrizketatua)

Indarkeria matxistaren ondoren hautemandako **ondorioen** artean, beldurrarekin eta norbere burua kuestionatzearekin zerikusia daukaten sentimenduen errepikapena dago. *Flores en el asfalto* txostenean, erruduntasuna da inpaktu eta ondorio psikologiko ohikoenetako bat, beste askoren artean. Bizirik irtendako emakumeek gai honi buruz hitz egin duten beste une batzuetan ere, hortxe agertzen da (adibidez, *Volar*⁵⁶ dokumentalean). Txosten honetarako elkarrizketatu dugun emakume batek esaldi honetan laburbiltzen ditu geratu zaizkion ondorioak:

56 Volar. Bertha Gaztelumendi. Emakunde. 2017.

«Indarrrik eza, ondorioak, konfiantzarik eza, mina, zalantzak, segurtasunik eza... Hil nazaketelako sentipena». (B elkarrizketatua)

Bi emakume elkarrizketatuk **bikote barruan berriro ere indarkeria jasateko beldurra** aipatu dute. Hain da beldur handia, ezen beste bikote-harremanik ez hasteko arrazoia dela adierazi baitute:

«Ez nuen bikotekiderik bilatu, beldurra ematen didalako. Hortxe geratzen zaizu; bikotekidea bilatzeak beldurtzen zaitu».

(B elkarrizketatua)

«Beno, ni ez naiz beste pertsona batekin elkartu, ondo sentitzen hasten naizenean ez dudalako beste pertsona bat nahi nire bizitzan, edonorekin egin dezakezulako topo. Askotan, ordea, ez dakit beldurragatik den edo lortu dudan hori ezegonkortzeagatik den. Etxea bat-batean eraitsi eta berriro eraikiko bazenu bezala da. Nire etxea nik egin dut gutxienez, eta beste bat baldin badator eta berriro botatzen badizu, ba...». (C elkarrizketatua)

1.2.3 SINBOLIKOTIK TOKIA EMATEA

Bi taldeei galdetu zaie **sinbolikoak** zer-nolako garrantzia izan dezakeen indarkeria matxistaren biktimak eta hortik bizirik irtendakoak benetan erreparatzeko eta haien memoria berreskuratzeko.

«Uste dut sinbolikoak garrantzia duela (...). Prestakuntza batean, sinbolo bat eman zidaten. Eta, erortzen naizen bakoitzean, ikusi egiten dut, eta lagundu egiten dit». (1. taldea, Berri Nann, 1. parte-hartzailea)

«Begira, semearen omenez daramat eskumuturreko hau [eskumuturrekoak nahasmendu neurobiologikoren bat duten pertsonak ikusarazten ditu]. Ez litzaidake inportako eskumuturreko bat eramatea, argi eta garbi diotsut, jendeak ezer kuestionatu gabe errespetua erakutsiko balu eta "Zenbat sufritu behar izan duen pertsona horrek, zenbat!" esango balu». (C elkarrizketatua)

Elementu edo ekintza sinbolikoek bizitako gertakariei edo esperientziei **bestelako esanahi bat** emateko ahalmena dute, eta **gizartearen erantzukizunerantz** bideratu dezakete indarkeria. Horrela, pertsona jakinengan kokatuta dagoen sufrimendua eremu kolektibo batera eramán daiteke, eta, han, diskurtsoak egin⁵⁷.

57 Experiencia de la Estrategia de Recuperación Emocional con Mujeres Víctimas de Violencia Sexual en Colombia. Biktimen Arretarako eta Erreparazio Osorako Unitatea. Kolonbia, Nazio Batuen Biztanleria Funtza (UNFPA), 2017.

Halaber, eremu edo esperientzia sinboliko horiek biktimekiko **enpatiazko** loturak sortzera irits daitezke, eta errealitatea ulertzeko eta harekin harremanetan egoteko dugun modua aldatu.⁵⁸

«Oroitzeo monumentuak. Haurrek zer gertatu zen jakin dezatela (...).
Emakume biktimentzat ona da, eta gizonentzat ere bai, balitekeelako
ikustea eta erreakzionatzea. Ona da egotea: ni ere biktima naiz».

(B elkarrizketatua)

Zentzu horretan, biktimen memoria berreskuratzeak aitortzari eta oroimenari gaineratzen zaizkien ondorioak eransten ditu. Gizartearen iruditerietan aldaketa eragitea dakar, eta gizarte osoa tartean sartzea.

«Memoria maila sinbolikoan berreskuratzeo ekintza bat egiten
duzunean, batetik, ikusarazteko aukera daukazu, izena jartzekoa,
aitortza egitekoa eta erreparatzekoa. Eta, bestetik, herritarrek
oro har sentsibilizatzeko aukera sortzen da».

(2. taldea, Sartu, 1. parte-hartzailea)

Nabarmentzekoa da, adibidez, Mugarik Gabe GGKEak 2019an egindako ekintza ibiltaria. Proiektu horren bidez, diziplina anitzeko instalazio artistiko bat jarri zen EAEko udalerrien erdialdeetan. Bertan, askotariko indarkeriak jasari zituzten emakumeen bizi-istorioak jasotzen dira, hainbat aldiz aipatu dugun *Flores en el asfalto* (2017) argitalpenetik abiatuta. Lekukotza horiek «gure memoria kolektibora sartzea eta indarkeria matxistei beste esanahi batzuk ematea» da xedea, «gizartearen iruditeria aldatze aldera. Gaur egun, indarkeria horiek ikusezin egiten dira, eta erruduntasuna eta isiltasuna ezartzen zaizkie emakumeei. Bada, premiazkoa da biktimen eta bizirik irteerako memoria berreskuratzea, egia, justizia eta erreparazioa lortu nahi baditugu⁵⁹».

Interesgarria da, era berean, Gasteizen emakumeak sinbolikoki irudikatzen dituzten guneen inguruko hausnarketa. Parte-hartzaileen esanetan, gunek horiek **ez dira nahikoak**:

«Gasteizen, oso kale gutxi daukate emakumeen izenak. Emakumeei
egindako monumentuak ere ez daude. Erreferente guztiak ikusezin
egin dira». **(2. taldea, Eoncult, 1. parte-hartzailea)**

58 Miren Llona. Memoria histórica y feminismo. Granadako jardunaldi feministak, 2009ko abendua.

59 <https://www.hauxeda.com/exposicion-memoria-eraikiz-de-la-ongd-mugarik-gabe-del-19-al-21-de-octubre-en-la-plaza-juan-urrutia/>

Hausnarketa horren harira, beste talde bateko parte-hartzaile batek **emakumeok eremu publikoetan dauzkagun presentzia eta tokia** aipatu ditu, hirira errepidez sartzeko lau puntuetan jarritako seinaleen (indarkeria matxistaren kontrakoak) adibidea baliatuta⁶⁰:

«Eta begiratu zer-nolako istilua sortu zen daukagun toki txiki horrekin; uste dut emakumeei tokia emateak beti eman izan dituela arazoak. Toki gutxi okupatuz eseri behar dugu. Gasteizen ere, toki gutxi hartuta egon behar dugu, eta seinalea, bi seinale izan daitezela, eta txikiak».

(2. taldea, Sidalava, 2. parte-hartzailea)

Miren Llonak dioen moduan, memoria historikoan aurrera egiteak «**esanahiak, zentzuak eta sinboloak erreferente publiko gisa erabakitzen diren tokian presentzia eta autoritatea irabaztea**» eskatzen du. Horrela, bizitakoa legitimatzen da, eta **gizartearen gaurko aitortza indartzen**.⁶¹

60 2017an jarri ziren, "Vitoria-Gasteiz eraso matxisten aurka / Vitoria-Gasteiz contra de las agresiones machistas" esaldiarekin, eta hainbat kritika jaso zituzten, batzuek edozein eraso mota xertatu behar zutela uste baitzuten; hau da, ez zela indarkeria mota zehaztu behar (kasu honetan, indarkeria matxista). Gainera, behin baino gehiagotan boikotatu dituzte, pintaketen eta ezabaketen bidez. Horrek agerian jartzen du, besten behin ere, gizartearen ez direla aitortzen ez indarkeria matxistaren larritasuna, ez presentzia bera. Eta, eztabaida-taldean parte hartu duen emakumeak esan duen moduan, erantzunak sortzen dira kolektibo zehatzek (kasu honetan, indarkeria matxistaren biktimek eta hortik bizirik irtendakoek) eremuak okupatzen dituztenean.

61 Miren Llonak. Memoria histórica y feminismo. Granadako jardunaldi feministak, 2009ko abendua.

1.3. INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEN ETA BIZIRIK IRTENDAKOEN ERREPARAZIORAKO PROPOSAMENAK

Bi eztabaida-taldeetan, biktimak eta bizirik irtendakoak aitortzeko eta erreparatzeko nahiz haien memoria berreskuratzeko prozesu eta politika publikoak egiteko orduan aintzakotzat hartu beharreko zenbait **ekarpen eta proposamen** jaso dira. Taldean hausnartzeak berak banakoaren frustrazioa murrizten duela eta, frustrazioetatik harago, ideia eraikitzaileak zein askotariko proposamenak garatzeko bidea irekitzen duela ematen du.

Datozen orrialdeetan, dinamikan parte hartu duten emakume antolatuen **ekarpen nagusiak** jasotzen dira.

1.3.1. BABESA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA, PROZESU PARALELO GISA

Diskurtsoak aztertzean ikusi dugunez, erreparazioa erabatekoa izateko prozesurik egiten ari ez dela sentitzen dute, eta horren ingurukoa da kezka nagusietako bat. Alde batetik, arreta hasierako faseetan eteten dela ikusten dute. Bestetik, emakumeentzako zailtasun handiak hauteman dituzte; bereziki, izapide burokratikoetan, irisgarritasunean eta erakundeen harreran. Zentzu horretan, eta analisi honen lehenengo blokean hausnarketa horiei buruz jaso diren lekukotzetan islatzen den moduan, emakumeek biktimen jarraipenik eta bidelaguntzarik egiten ez dela sentitzen dute. Hala, **jarraipen- eta bidelaguntza-prozesuak behar** direla adierazi dute, eta beharrezko **sentsibilitatetik** jorratu behar direla horiek. Era berean, gizarte-arretan aritzen diren profesional guztiei **prestakuntza** eskatu behar zaiela esan dute, baliabidea edozein izanda ere.

«Bidelaguntzarekin batera, jarraipena egin behar da. Gu, adibidez, egin beharreko prozesuan bidelagun aritzen gara Nahikari programan, eta ahalduzko tailerrak egiten ditugu, une oro eginez nolabaiteko jarraipena. Esaterako, prebentzio soziosanitarioan, STGen (Sexu-transmisiozko gaixotasunak) eta GIBaren (Giza immunoeskasiaren birusa) prebentzioan, prostituzioan aritzen diren guztiek daukate txartel bat. Orduan, hilero etortzen dira kondoi bila, eta jarraipena egiteko modu bat da hori, beraiekin hitz egiten dugulako, eta nola dauden ikusi...».

(2. taldea, Sidalava, 1. parte-hartzailea)

«Hasieran, ematen du guztia dela albiste bat; zerbait gertatzen da, eta, zenbat eta bitxiagoa izan, orduan eta garrantzi handiagoa ematen zaio. Eta, gero, beno, arreta desagertzen doa. Egia da une jakin batean terapia daukazula. Nire kasuan, gutxi izan zen,

lekualdatu egin baitzen... Nik ume txikiak neuzkan, eta, dirudienez, une hartan ni neu izateari utzi nion... Hau da, zehazki nigan lan egiteari utzi nion, ni izan arren trauma jasan zuena, amaren rolean bete-betean sartzeko». (C elkarrizketatua)

1.3.2. EMAKUME ERREFERENTEAK

Parte-hartzaileek **emakume erreferenteak aitortzeak eta izendatzeak** duen garrantzia azpimarratu dute. Adibidez, Gasteizen, 2010ean, kaleen eta plazen % 4k bakarrik egiten zieten erreferentzia emakumeei. Horrek argi erakusten du ez zaiela balio handirik ematen askotariko eremuetan (adibidez, kulturean, kirolean, zientzietan, literaturan...) egin dituzten ekarpenei. Gainera, izendatzen diren emakume askok Elizarekin daukate zerikusia (santuak, komentuen sortzaileak eta ongileak eta mojak)⁶². Beharrezko ikusten da emakumeak izendatzea eta aitortza jasotzeko tokiak sustatzea, hiriaren esanahi kolektibo eta historikoen parte izan ahal izateko.

«Bai, aldi berean proposatu genuen aitortzarako eta erreparaziorako garrantzitsua dela emakume erreferenteak edukitzea. Emakumeak dinamikan parte hartzera gonbidatzen genituen; alde batetik, indarkeria-egoera horiek modu anonimoan partekatzeak aukera ematen genien, eta, bestetik, aurrera jarraitzeari begira eta gure artean, emakume erreferente publikoak eta pribatuak (nolabait esatearren) zein izan diren aitortzea oso tresna garrantzitsua dela proposatzen genuen. Aldi berean, bi dinamika proposatzen genituen: emakume erreferenteen poster bat, eta gure bizitzan garrantzitsuak izandako emakumeen izenak idazteko post-it-ak. Orduan, aitortza eta erreparazioa dinamika berean egiten saiatzen ginen».

(2. taldea, Sartu, 1. parte-hartzailea)

«Nire elkartearen iraganeko emakume erreferenteak biltzeko eta, jakina, emakumeak gaur egun egiten ari diren lana ikusgarri egiteko web bat egitea pentsatzen ari gara».

(1. taldea, Eoncult, 1. parte-hartzailea)

«Bizpahiru hilabetez Espainiako emakume gor bikainak gonbidatzea gustatuko litzaidake; adibidez, aktore gorra edo zineman lan egiten duten emakume gorra. Nafarroako Parlamentuan, esaterako, emakume gor bat dago. Izan ere, munduan protagonismoa duten emakume gor guztiak, guretzat oso-oso garrantzitsua da horiek ikusgarri egitea, erreferentziatzeko eredu hori edukitzeko eta emakume gor gisa

62 Pilar Sanz de Pablo. Mujeres en las calles. María de Maeztu Forum Feminista. 2010.

ahalduntzeko». (1. taldea, Arabako Gorrak, 1. parte-hartzailea)

«Baina gauzak lortu dituen eta borrokatu duen emakume entzutetsua bada, monumentua merezi du hiriaren erdialdean. Eta horrek ikusgarritasunean laguntzen du. Historiak, azken finean, ikusezin egin gaituelako: historiaren erdia egin da ikusezin, emakumeen zatia».

(1. taldea, Eoncult, 1. parte-hartzailea)

1.3.3. MEMORIARAKO GUNEA

Emakumeen presentzia publikoa eskasa denez, **toki propio eta sinboliko** bat sortzeko ideia ateratu da. Toki horrek, bada, ez du desberdinkeriak eta emakumeen gainean ezartzen diren indarkeriak ahazten utziko, eta, aldi berean, gizartearen ezinbesteko zati gisa aitortuko ditu emakumeak. Lehen ikusi dugun bezala, beste indarkeria mota batzuk aitortzen hasi dira dagoeneko; oroimen-tokiak dauzkagu planetako hainbat txokotan eta gure hirian bertan, bidegabekeriak gogoratzeko, erreparatzeko eta horiek berriro ez errepikatzeko premiari buruz hausnartzeko. Taldeetan parte hartu duten emakumeentzat, garrantzitsua da gune horiek **hiriaren erdialdean ondo ikusteko lekuan** egotea eta **irigarriak** eta **iraunkorrak** izatea; hau da, ez daitezela unean-unekoak izan. Gainera, ezin dezakegu ahaztu memoria bizia dela, indarkeria matxista gure artean egoten jarraitzen duen errealitatea delako. Hori dela-eta, erantzuteko hainbat estrategia behar dira.

«Nire ustez, egun batean egingo den ekintzez gain, hobe plakak, kaleak, monumentuak... egotea, zerbait iraunkorra izate».

(1. taldea, Eoncult, 1. parte-hartzailea)

«Oso toki publikoa izan beharko litzatekeela uste dut. Foru plazan dagoen irudiarengan pentsatzen dut, eta oso toki publikoan dagoela ikusten dut. Jende guztia pasatzen da hortik, jende guztiak daki zer zen, jende guztiak... Hau da, ezin daiteke foru-aldundiaren atzealdan egon. Ondo azaldu dut? Ezta Zabalganen edo Salburuan ere. Erdialdeko toki batean egon behar du, jende guztia igaroko den leku batean, aitortza egitea toki bat jartzea ere badelako, toki bat aitortzea, hirian leku garrantzitsua ematea».

(2. taldea, Sartu, 2. parte-hartzailea)

«Ados nago zuekin: gunea edukitzea oso garrantzitsua da, baita gunea nolakoa den ere. Ez baita gauza bera foru-aldundiaren aurrealdean edo atzealdean egotea. Edo erdialdeko plaza bat izatea eta guztiaren muinean egotea edo errepede bat duen atzeko plaza bat izatea. Hori garrantzitsua da».

(2. taldea, Sidalava, 2. parte-hartzailea)

Eztabaida-talde batean, gainera, emakumeei edo indarkeria matxistaren biktimei eta hortik bizirik irtendakoei eskainitako edozein elementu edo gune sinboliko **prozesu parte-hartzaile** batetik abiatu behar dela esan dute. Haien esanetan, prozesu parte-hartzailea izateko, askotariko pertsonak eta gizarte-eragileek hartu behar dute parte, eta inplikatu, denboran luzatuko den aldi batean, eta, bertan, garatu beharreko lanak edo ekintzak zehaztuko dira. Era berean, aurrera egin ahala, birdiseinatzen joango da⁶³. Bada, puntu honen azkenengo lekukotzan islatzen den moduan, eraginkortasunez balia liteke prozesu parte-hartzailea. Hau da, produktu hutsa izan ordez, gizartean parte-hartzearen bidez eragitea lortzeko **tresna** izan daiteke. Azken batean, parte-hartzea aldi berean xedetzat, metodologiatzat eta eraldaketa-tresnatzat hartzea da kontua.

«Ahalduntzearen inguruan esan duzuna zerbait sinbolikoa egitearekin lotuta, uste dut oso garrantzitsua dela emakumeei ahotsa ematea eta prozesu parte-hartzaile batean ere parte aktiboa izan ahal izatea (...). Erakunde guztiak gonbidatuz egin nahi den ideian koka liteke pixka bat, emakumeen bidez, ez dakit, taldeak eratzera gonbidatzeko, erakundeetatik modu aktiboan parte hartzera gonbidatuz, emakume guztiak ordezkatuta egoteko moduan».

(2. taldea, Sartu, 1. parte-hartzailea)

«Bai, parte-hartzean pentsatzen dudanean, uste dut oso garrantzitsua dela, parte hartu izan dugun prozesu parte-hartzaile guztiengatik, argi eduki behar dela zertarako egiten den (...). Eta gizarte osoak benetan parte hartzea nahi badugu, guztiak gonbidatu beharko dira (...). Esan nahi dut... Adineko emakumeak egotea gustatuko litzaidake (...). Lkastetxeak, irakasleak, askotariko adarrak... gonbidatu beharko dira, baina bakoitza modu batean. Eta, kasu batzuetan, festaren egunera etortzea bakarrik izango da parte-hartzea. Baina horregatik, maila ezberdinak egon daitezkeelako, pertsona guztiak kontuan hartuta, inplikazio-maila ezberdinetatik». **(2. taldea, Sartu, 2. parte-hartzailea)**

«Egiten den horretan, askotariko tokietan, animatu egin behar da, eta parte-hartze komunitarioa bezalako prozesuren bat egiten bada, ba jakin egin behar da. Beno, profil hori duten pertsonak dauzkagu, prestatu daitezkeenak eta proiektuan lagundu dezaketenak, proiektuaren parte izan. Ikusgarritasuna emanaz, txertatuz, nolabait esatearren». **(C elkarriketatua)**

63 EUDEL. Nola egin kalitateko partaidetza-prozesua? Gida praktikoa. Tokiko berrikuntza-agenda... 2009.

«Kontzientziatzeko eta hezteko baliatzea prozesu sortzaile hori, herritarrek eta gazteek... Aitortzarako eta erreparazioarako gune hori sortzeko prozesua eta sentsibilizazio kolektiboko prozesua ere izan dadila, eta benetan ikus dadila indarkeria matxista guztion gauza dela, ezta?». (2. taldea, Sartu, 2. parte-hartzailea)

«Gainera, askoz ere balio handiagoa hartzen duela uste dut. Nonbaitekoa sentitzen zarenean, modu aktiboan parte hartzen duzunean, eta kanpotik datorkizun zerbait ez denean, zer dakit ba, ez dakit noren omenezko plaza bat inauguratu dute, ba oso ondo dago, baina, parte sentitzen zarenean eta hasieratik parte hartzen duzunean, askoz ere balio handiagoa hartzen duela uste dut, eta, erreparazioari edo aitortzari begira, beste dimentsio bat hartzen du». (2. taldea, Sartu, 1. parte-hartzailea)

1.3.4. INTERSEKZIONALITATEA, IKUSPEGI GISA

Proposamen horiekin guztiekin zeharka, parte-hartzaileek bereziki azpimarratu dute emakumeek izan behar dutela emakumeen memoria oro har eta indarkeria matxistaren biktimen eta hortik bizirik irtendakoen memoria zehazki jasotzeko edozein gune edo esperientzia sortzeko prozesu posible horren **protagonistak**. Era berean, sortzen den horrek **anitza eta kulturartekoa** izan beharko du, eta emakume guztiak aitortu beharko ditu, gure ezaugarri bakanak aintzat hartuz eta pertsona anitz eta sailkaezinak garela erakutsiz. Zentzu horretan, aintzat hartu behar dira, parte-hartzaile batzuek gogoratu duten moduan, emakume guztien **denborak eta premiak**⁶⁴.

«Arreta bereziz jokatu nuke, emakume guztiok egon gaitezen ordezkatuta. Hau da, emakume gazteak, zaharragoak, hainbat jatorritakoak, aniztasun funtzionaldunak egon daitezela, indarkeria matxisten emakume biktima guztiak benetan sentitzen duten zerbait izan dadin». (2. taldea, Sartu, 2. parte-hartzailea)

«Gune bat behar dugu. Kulturarteko gune bat. Anitza. Edonolako emakumeentzat, guztiak egon daitezen». (1. taldea, Eoncult, 1. parte-hartzailea)

«Uste dut garrantzitsua dela errealitate horrek ukitzen dituen kolektibo guztien ordezkaritza egotea. Hots, gaixotasun mentala dutenengandik

64 Emakumeek eta gizek ez dugu denbora berdin erabiltzen; bereziki, etxeko lanetarako eta zaintza-lanetarako denborari dagokionez. (Matxalen Legarreta Iza. El tiempo donado en el ámbito doméstico. Reflexiones para el análisis del trabajo doméstico y los cuidados. Cuadernos de relaciones laborales. 2008.)

hasi eta prostituzioan aritzen direnengana edo emakume transexualengana iritsita; ez dakit: askotariko errealtate ugari daude, indarkeria ezberdinak direnak baina, azken batean, guztioi eragiten digutenak». (2. taldea, Sidalava, 2. parte-hartzailea)

«Haiek egon gabe hau egin ezin dezakegula argi edukita, haiek baitira, nire ustez, ideia honen ezinbesteko zatia; modu aktiboan har dezatela parte». (2. taldea, Sartu, 1. parte-hartzailea)

«Ni ere guztiz ados nago, eta erdigunean jarri behar dira (...). Baina, egiazki, boterea, pisua haiek eduki behar dute. Eta haiena izan behar du». (2. taldea, Adsis, 1. parte-hartzailea)

«Uste dut Bizirik taldeko emakumeek protagonismo berezia eduki beharko luketela kasu honetan. Guztiek egon behar dute, baina uste dut Bizirik bezalako norbait izan beharko litzateke burua edo buruetako bat, dagoeneko antolatuta dauden emakumeak baitaude hor, ahal handia dutenak». (2. taldea, Sartu, 2. parte-hartzailea)

«Tokiez gain, baita denborak ere. Emakumeak prozesu horretara joateko aske sentituko diren denborak. Horrekin, adibidez, ikastaroen kontua ikusten dugu. Adibidez, urtean pare bat ikastaro beti egiten ditugu goizetan, 10:00etatik 15:00etara, zaintzen eta kontziliazioen gaiarengatik... Horietako asko indarkeriaren biktimak dira. Iritsi ahal izateko moduko tokiak bilatu. Tokiak, denboraz gain. Hau da, zein toki eta denbora izan daitezkeen pentsatu behar da».

(2. taldea, Adsis, 1. parte-hartzailea)

«Edo laguntzak ematea, berdintasunerako eskolaren ekintza guztietan egon daitezkeen bezala. Laguntzen duten zerbitzuak; adibidez, haurtzaindegi-zerbitzua, gauzak errazteko».

(2. taldea, Sartu, 1. parte-hartzailea)

«Ahotsa emateaz hitz egin dugunean bururatu zait, eta orain tokiaren gaia atera da. Ahotsa badaukate. Agian hori eman behar diegu, ahotsa erakusteko tokia, ezta? Lotura hor egitea bururatu zait».

(2. taldea, Sidalava, 1. parte-hartzailea)

1.3.5. ERAKUNDEAK, PROZESUARI BIDE EMATEKO LAGUNTZAILEAK

Prozesu posible horretan, parte-hartzaileek esan duten bezalaxe, emakumeek izan behar dute protagonistak. Alabaina, **erakundeek** (kasu honetan, Gasteizko Udalak) aurrean egon behar dute, baina **ez lidergoa hartuta, agente erraztaile eta laguntzaile gisa baizik.**

«Beharbada esaten ari naizen hau ez da politikoki zuzena, baina, nire ustez, lidergoa ez du Udalak eduki behar. Zerbait partekatua izan behar du. Uste dut Udalak lagundu egin behar duela, baina lidergoa gizarteak eduki beharko luke, herritar zibilek, herritar aktiboek edo mugimendu feministarekin nahiz emakume biktimekin harreman handiagoa daukaten erakunde eta elkarteek. Eta Udala euskarri modukoa izan dadila, laguntzailea, baita askotan behar izaten dugun euskarri tekniko ere; adibidez, errealitatearen ezagutza, oinarrikoa da-eta». (2. taldea, Sartu, 2. parte-hartzailea)

«Jakina, nire elkartean lan egiten da, baina inbertsioa eta gizartearen aitortza behar dira. Ezin dezake elkarte batek egin. Oso zaila da». (1. taldea, Eoncult, 1. parte-hartzailea)

«Nik proiektu txiki baten aldeko apustua egin dut, ez daukagulako diru askorik (...). Arazoa zera da, jarduera gorren elkartearen barruan bakarrik egingo genukeela, eta gorrentzat bakarrik. Uste dut jende guztiak ikusi behar duela, ikusi beharko lukeela eta ikus dezakeela. Orduan, Udalak jarduera jendaurrean jartzen lagunduko baligu... Emakume gor asko baitaude protagonismo handia dutenak, eta munduak jakin egin beharko luke. Baina ez dakigu nola lortu ikusgarri egiteko laguntza hori». (1. taldea, Arabako Gorrak, 1. parte-hartzailea)

«Bai, ez dadila zerbait instituzionala izan. Ez dadila izan "hemen hori jarriko dugu, pankarta bat Gasteizko sarreran, dagoen more hori", hortxe geratzen delako. Behetik izan dadila, eta benetan izan behar duenarena». (2. taldea, Adsis, 1. parte-hartzailea)

«Udalak entzun gaitzala, jende gehiago sar dadin, atek irekitzeko, elkarteekin izan dadila. Zer-nolako laguntzak dauden jakin beharko lukeen jende txiro asko dagoelako. Baliabideek eta zerbitzuek estalita egon behar dute». (B elkarrizketatua)

1.3.6. SARE FEMINISTAK

«Emakume, antolatu eta borrokatu» lelo feminista jada historikotik abiatuta, parte-hartzaileek gizartea eraldatzeko ezinbesteko tresnatzat jotzen dute lan kolektiboa. Talde batean eta bi elkarrizketatan, **emakumeen sareak** sortzeko premia aipatu da, horrekin sinergiek gora egiten dutelako eta emaitza askotarikoagoak eta sortzaileagoak lortzen direlako.

«Iradokizun bat: Nik neuk ez dut gunerik ikusi; ba, agian, sare bat sortzea. Zegatik sare bat? Horrela gauzak partekatu ahalko ditugulako, orain bezala. Indartu egingo ginateteke. Eta uste dut lan egiteko indar handiagoa hartuko genukeela elkarteen arteko sare batetik, maila sozial edo instituzionalean.

Eta, jakina, sarea izatean, informazioak eta prestakuntzak daude; ez dakit, gauza mordo atera daiteke. Eta, besteren artean, erreferenteak izan gaitzke. Zerbait praktikoagoa. Eta, sareetan, ba lan indartsuagoak egiteko aukera dago». (1. taldea, Berri Ñann, 1. parte-hartzailea)

«Nire hemengo lehenengo laguna Artiumen ezagutu nuen. [Berri Ñann] elkartearekin zegoen, mahai batzuetan, folklorea egiten. Eta esan nion: "Zer egin behar da hemen egoteko?". Eta garrantzia eman zidan: nire telefono-zenbakia hartu zuen, eta deituko zidala esan. Nire lehenengo laguna izan zen. Duela lau urte. Berari esker nago hemen. Elkartean parte hartzen dut, nahiz eta bilobekin gauza asko eduki». (B elkarrizketatua)

«Nik, nire elkartetik, barkamena eskatzen dizuet guztioi, zuekin bilera bat daukadan/daukagun lehenengo aldia delako. Beti egon gara elkartearen barruan, gure taldean, eta ez gara kanpora zabaldu. Ona da jendea ezagutzea (...). Horrelako bilera bat egiten den lehenengo eta azken aldia ez izatea espero dut. Hau ona delako. Zabaltzea ona da, ezagutzea». (1. taldea, Gao Lacho Drom, 1. parte-hartzailea)

«Hilabetean behin edo bi hilabetetik behin elkartu gitezke». (1. taldea, Eoncult, 1. parte-hartzailea)

Sareak edo baterako guneak sortzearen harira, guztiek adierazi dute **taldean lan egin** behar dela indarkeria matxista jasaten ari diren edo jasan duten emakumeen memoriarako, erreparaziorako eta justiziarako prozesuak diseinatzeko, planifikatzeko eta bultzatzeko orduan. Sare bateko kide izateak eta beste emakume batzuekin aliantzak edukitzeak indarkeria matxista jasaten ari direnen edo jasan dutenen **erreparazioari eta aitortzari** lagundu diezaioke. Bakarrik ez gaudela sentitzeak eta gure gainean ezarritako indarkeria kasu isolatua ez dela ikusteak zenbait **sentimenduren kontakizunak egiten** lagundu dezake, analisiaren bigarren blokean ikusi dugun bezala, emakume askorengan errotuta baitaude (adibidez, erruduntasuna).

«Adore gehiago edukitzera animatu nautenez, orain nik emango diet beste batzuei. Elkartean parte hartzeak lagundu egin dit». (B elkarrizketatua)

«Gertatzen zaigun gauzetako bat zera da, arraroak garela sentitzen dugula egiazki ezberdinak garenean. Beste emakume batzuei ere hori gertatzen zaiela ikusten duzunean, dagoeneko ez zara arraroa. Eta erruduntasuna beste modu batean landu daiteke. Uste dut taldeak erruduntasuna beste ikuspegi batetik lantzeko aukera ematen dizula. Oso barneratuta dugun sentimendua da hori, baina desegin egin daiteke. Eta, norbanakoaren mailan ez ezik, oso garrantzitsua hori, talde mailan landu daiteke, eta beste dimentsio bat hartzen du». (2. taldea, Sartu, 1. parte-hartzailea)

Eztabaida-talde batean zehazki, parte-hartzaile batek adierazi du zailtasunak izan dituela genero-berdintasunarekin zerikusia daukaten proiektuak hedatu eta aurrera ateratzeko orduan. Hainbat emakumek partekatu dute ideia bera, eta kontaktuak trukatzeko ekimena sortu da, batera lan egin ahal izate aldera eta, **ezagutza-trukeari** balioa emanez, elkar indartzeari begira.

Elkarteetan parte hartzeak inpaktu handia dauka emakume parte-hartzaileen ahalduz eta eremu nahiz politika publikoen konkistan.⁶⁵ Hala, elkarte eta kolektibo feministak, zeinak dokumentu honen erreferentziazko esparruan aipatu diren, funtsezkoak dira berdintasunerako politiketan hobekuntzak txertatzeko unean. Erakundeek horregatik begiratu behar diete antolakunde horiei, haien lanari balioa ematearekin eta, analisi honen aurreko puntuan ikusi dugunez, berdintasunean aurrera egiteko xedez diharduten kolektiboek eduki behar duten protagonismoa errespetatzearekin bat.

1.3.7. GASTEIZEN ERREPARAZIOA JORRATZEKO IDEIA ZEHATZAK

Taldeen dinamikak parte-hartzaile batzuek Gasteizen egin litezkeen **ekintza zehatzen** inguruko ideiak botatzea eragin du, indarkeria matxistaren biktimak eta hortik bizirik irtendakoak aitortzeko, erreparatzeko eta haien memoria berreskuratzeko ildoan:

«Ni benetan heavya izango nintzateke, eta Estatu Batuetan bezala egingo nuke. Udalari lursail zati handi bat eskatuko nioke, urtero hesolak jartzen joateko, ea noraino iristen garen. Zenbat zelai eskatu beharko ditugun». [Hildako edo erasotutako emakumeei buruz] **(1. taldea, Emakumeak Aniztasunean, 1. parte-hartzailea)**

«Kendu Gasteizko gudua...». [Emakume biktimak eta bizirik irtendakoak aitortzeko eta erreparatzeko tokia kokatzeari eta edukitzeari buruz hitz egitean] **(2. taldea, Adsis, 1. parte-hartzailea)**

«Beno, begira, Gasteizko gudua indarkeriaren kontrako gudua izan liteke; esanahia alda diezaiokegu [hainbaten barreak]; benetan, burua joaten zait. Baina gure gudua izan liteke; oso polita litzateke gudua hori izatea, ezta? Baina, beno, dena delakoa izanda ere, emakumeak garrantzitsu sentitzea nahi badugu benetan, toki garrantzitsua eman behar zaie». **(2. taldea, Sartu, 2. parte-hartzailea)**

65 Sara Ibarrola Intxusta. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak emandako ikerketabeka. El impacto de lo social en lo personal e íntimo: conocerlo, medirlo y transferirlo. Estudio de la contribución del movimiento asociativo al empoderamiento personal de las mujeres de la CAE. 2015eko urria.

«Inaugurazio-ekitaldi bat ari naiz ikusten, non emakumeek gauzak azaltzen dituzten, eta, prozesu parte-hartzaile hori bizi izan baduzu, edo ezagutu, toki horretara joatea, emakume horiei babesa erakustera, egun horretako une horretan. Erakundeak, emakumeak, bitarteko guztietatik egin dadila, egun horretan babesa emateko eta esateko "Zuekin gaude, eta errealitate hau egon badago, eta honekin amaitu nahi dugu"». **(2. taldea, Sartu, 1. parte-hartzailea)**

«Emakumeen memoria historikoari buruzko lehiaketa bat egitea. Galderen lehiaketa bat, non erantzun "errazak" sinbolikoki sarituko diren eta zailenak sari handiagoarekin. Adibidez: Nork aurkitu zuen Amerika? Kolonek, erraza. Zein izen zuen 2018an Gasteizen eraildako emakumeak?». **(Arabako Gorrak elkarteko parte-hartzaile baten ekarpena da, zeinu-hizkuntzako interpreteak idatziz jaso duena)**

«Adibidez, hilean behin megafoniaz kontatzea hildako emakume bakoitzaren istorioa. Plaza Berri osoan entzun dadila». **(Arabako Gorrak elkarteko parte-hartzaile baten ekarpena da, zeinu-hizkuntzako interpreteak idatziz jaso duena).**



1. ERANSKINA

EZTABAIDA-TALDEEN GIDOIA INDARKERIA MATXISTA ERREPARATZEKO PROIEKTUA

1. Saioa nola garatuko den azaltzea:

- Gaiari testuingurua jartzea, HARA! dokumentuari dagokionez: «Indarkeria matxistaren biktimak aitortzea eta haien erreparazioari laguntzea» xede estrategikoa. Esparru honetan, indarkeria matxista jasaten ari diren edo jasan duten emakumeak erreparatzeko eta haien memoria berreskuratzekeo prozesuetan aurrera egin nahi da. Gero, gaia berrartuko dugu, eta sakontzen joango gara.
- Arauak: ahots-grabaketa, konfidentzialtasuna; nor bere burua kontrolatzea eta gainerakoak kontrolatzea, denbora eman dezan; parte-hartzeari bide emateko materialak ematea (esan ez dituzten ideiak jasotzeko edo esan nahi dutena ordenatzeko post-it-ak eta bakoitzak nahi duena edo eztabaidak iradokitzen diena (irudi bat, ideia bat, hitz bat...) idazteko paperezko mantela); komentarioen ondoan kolektiboaren erreferentzia agertuko da baina inola ere ez parte-hartzaileen izenak (anonimoa izango da).

2. Kolektibo bakoitza aurkezteko txanda: indarkeria nola lantzen duten/egiten duten lan mota (aldarrikatzailea, laguntzailea, bidelaguntzailea, prestakuntzako, sentsibilizaziokoa..., emakumeen profilak). Oso labur, eztabaidarik gabe.

3. Aitortzari, erreparazioari eta memoriari buruzko hausnarketak:

- Eztabaida eta hausnarketa errazteko euskarria edo materiala egongo da.

Hainbat eremutatik jorra daitezkeen kontzeptuak dira. Alde batetik, erakunde publikoek **eskubide** gisa sartu behar dituzte gai horiek beren arreta-protokoloetara, erreparazioaren ikuspegitik lan eginez, zentzu zabalean (eraginkortasuna arretan, indarkeriatik irtetea, kalte-ordain ekonomikoak, (berriro) ahalduntzeko laguntza psikologikoa eta kaltea ez errepikatzeko bermea).

Bestetik, komunitatetik datorren lana dago: biktimei laguntzen dieten taldeak dira, eta erakundeek estaltzen ez dituzten premiei erantzuten diete, **salaketa publikoa** egiten dute, eta memoria berreskuratzea eskatzen dute.

Idea horien inguruan:

- Zeri buruz ari gara indarkeria jasan duten edo jasaten duten emakume biktimen/bizirik irtendakoen/emakumeen **errekuperazioaz eta erreparazioaz** ari garenean? Zuen ustez, zer da erreparazioa? Eta errekuperazioa?
- Memoriaren gaiak zein paper dauka indarkeria matxistak **gure hirian** utzitako biktimei dagokienez? (Ikusi zer ateratzen den, eta, eztabaidarik pizten ez bada, memoria indibiduala planteatu, zeina aitortzarekin eta erreparazioarekin lotuago dagoen. Aipatu, halaber, memoria kolektiboa, zeina salaketa publikoarekin, indarkeria matxistaren biktimen inguruko estigmarekin, egiarekin eta memoria biziaren bidez indarkeria ez errepikatzeke bermearekin lotuago dagoen).
- Zuen ustez, modu batean ala bestean gai honen inguruan lan egiten duten askotariko eragileen artean barneratuta dago, ala jorratzeko zaila den gaiza **berria** da?
- Zuen taldean nola lantzen dituzue/landuko zenituzkete errekuperazioa eta erreparazioa?
- Zein **zailtasun** topatzen dituzue hor?
- **Sinbolikoak** zenbateko garrantzia dauka erreparazio-, sendatze- eta errekuperazio-prozesuetan? Eta gure tokiko errealitatearen memoriari egiten dion ekarpenean?

HARA! Berdintasunerako Planaren testuingurua berrartuko dugu, gai horiek prozesu-ikuspegitik nola jorra daitezkeen eztabaidatzen hasteko; batez ere, gizarte osoari dei egiten dion lan kolektiboarekin zerikusia duen horri dagokionez. Herritarren ahotsetik abiatzea interesatzen zaigu, baina, bereziki, kolektiboan, taldeen eta elkarteetan ahotsetik abiatzea. **HARA!** dokumentuan, indarkeria matxistaren biktimak/hortik bizirik irtendakoak erreparatzeko **prozesu kolektibo bat sendatzeko** bidean aurrera egiteko asmoa jasotzen da, egia eta justizia ahalbidetzeko eta indarkeria ez errepikatzea nahiz memoria berreskuratzea lortzeko ildoan.

- Planteamendu horretatik, zein eginkizun dute tartean diren agenteek (biktimek/bizirik irtendakoek, senideek eta hurbileko eremuek, kolektiboek, gizarte-mugimenduek, gizarteak, erakundeek...)?
- Zer egin liteke indarkeria matxistaren emakume biktimen **memoriari laguntzeko**, ikuspegi **ahalduntzaile** batetik abiatuta eta prozesu sendatzaile eta erreparatzaile gisa hartuta? Horri buruzko ideia zehatzik bururatzen zaizue? (Egokia bada, hainbat ekimenen irudiak eman).

4. Amaieran, **ondorioak** ateratzeko, ekarpen zehatzak egiteko, taldea eta ideiak baloratzeko eta haien kolektiboetan indarkeriatik bizirik ateratako emakumeekin elkarrizketak egiteko aukera iradokitzeke denbora emango da.

2. ERANSKINA

BIZIRIK IRTENDAKO EMAKUMEEN ELKARRIZKETAK

Saioaren azalpena

Jarduera hau IV. Planean kokatzen da.

Zati bat emakume antolatuen eztabaida-taldeekin egin da, eta, bigarren zatian, indarkeria matxista jasan duten emakumeen ahotsak jaso nahi dira.

Saioaren iraupena. Konfidentzialtasuna. Grabatzeko baimena. Behar bada, edozein unetan geratu. Galdera batzuetan gehiago sakondu nahiko dugu, eta beste batzuetan gutxiago. Hortaz, gaiak bideratzen joango gara, batez ere erreparazioari eta memoriari heltzeko. Hau da, ez dugu haien indarkeria-egoera sakondu eta nahasi nahi; beraz, baliteke batzuetan elkarrizketa bideratu behar izatea.

1. ZURE ISTORIOAREN TESTUINGURUA:

1.1. Zergatik hartu nahi izan duzu parte elkarrizketa honetan?

- Labur-labur, aitortza jasotzeko eta bere burua nahiz emakumeena oro har erreparatzeko premiaren inguruko zantzuak eman diezazkiguke honek, baina ezin ditzakegu kontu batzuk alboratu eta zuzenean galdera zehaztutara jo.
- Jasandako egoera edo indarkeria motari buruzko informazioa ateratzen bada, EZ sakondu hurrengo galdera.

1.2. Nolakoa izan zen pairatutako indarkeria-egoera edo indarkeria mota?

- Labur-labur, indarkeria-mota, biktimarioa (bikotekidea zen ala ez), tartean egondako beste pertsona batzuk (seme-alabak...) ezagutu.

2. INDARKERIA-EGOERATIK IRTETEA ETA LAGUNTZA JASOTZEKO GUNEA

2.1. Zure ustez, zein ondorio geratu zaizkizu epe luzera? Zein sentazio eta sentimendu? (Beldurra, lotsa, erruduntasuna, mendekotasuna, ziurtasun-gabezia, autoestimua, insomnia, ondorio fisikoagoak (minak, gaixotasunak...), seme-alabekiko sentimenduak (baldin badaude)...).

2.2. Indarkeria-egoeran zeundela eta hortik irtetean, zer nolako laguntzak jaso zenituen, jaso baldin bazenituen? Zer bota zenuen faltan?

- Ez begiratu sare instituzionalari bakarrik: elkartean ehundura, ingurua (auzokide bat, lagun bat...), eskola, medikua... ere aipatu.

2.3. Zure ustez, laguntza horiek (edo aipatu duzun horrek) nola lagundu zizun indarkeriatik irteten eta errekuperatzen? Gaur egun, toki horiek zein paper dute zure bizitzan? Aldatu egin dira? Mantentzen dituzu? Zein zentzutan lagundu zizuten? Erreparatzaileak dira? Lehen aipatu ditugun ondorioei dagokienez,

2.4. Zure ustez zein dira edo izan dira prozesuan izan dituzun oztopo nagusiak? Zure ustez, nola eragin dute indarkeriatik irteteko eta errekuperatzeko prozesuan? (zure inguru hurbilenean, auzoa, haurren eskola, hedabideak, zerbitzu publikoak...).

- Ikusi atzerritarra izateari, egoera administratiboari, arrazalazatua izateari, aniztasun funtzionala edukitzeari edota baliabiderik/enplegurik ez edukitzeari buruzko aipamenik egiten duen.

3. AITORTZAREN, ERREPARAZIOAREN ETA ERREKUPERAZIOAREN INGURUKO PERTZEPZIOAK

3.1. Nola sentituko zinateke biktima/bizirik irtendako emakume gisa aitortuta? Zure ustez, nola lehengoratu beharko lirateke urratu dizkizuten eskubideak?

3.2. Zure ustez, zer da jasandako mina erreparatzea? Orain, zein premia dauzkazu guztiz erreparatuta sentitzeko?

3.3. Zure ustez, erakundeek zein eginkizun dute indarkeriatik irteteko eta erreparatzeko prozesuan? Zure ustez, erakundeek zein paper dute urratutako eskubideak lehengoratzeko orduan? Zerbitzu publikoek nola lagundu beharko lukete prozesu horretan?

- Eskubide moral, sozial eta politikoak lehengoratzeko, kalte-ordainak, prozesu terapeutiko pertsonalizatua/autoestimua, osasuna, enplegua, etxebizitza, aisialdia, berriro ez biktimizatzea/burokrazia murriztea, sistema judicial eta zigortzailea...

3.4. Askotariko indarkerien memoria berreskuratzeari buruzko ezer entzun duzu? Zure ustean, indarkeria matxistaren arazoak zer-nolako ikusgarritasuna dauka gure gizartean? Kontua ikusgarri egiteko edo salatzeke nahiz gaiari garrantzia eta erantzuna emateko tokirik edo ekintzarik ezagutzen duzu Gasteizen? Baten batean parte hartzen duzu? Nola sentiarazten zaituzte? Zure elkartean, sinbolikotik lanik egiten da?

- Ondo sentiarazten zaituzte; mina eragiten dizute; ondo iruditzen zaizu elkarteak egotea, baina ez duzu parte hartu nahi edo ezin duzu; ez duzu uste balioko dizunik; ez zara ordezkatuta sentitzen; ez duzu elkarerik/ekintzarik ezagutzen...

ADIBIDEAK: mugimendu feministaren elkarretaratzeak, erakundeen minutu isilak, indarkeria matxistaren biktimei egiten zaizkien omenaldiak, ekintza sinbolikoak (adibidez, Emakumeak aniztasunean elkarteak egiten duen landaketa)... Horretaz gain, materialak eta irudiak eman (esaterako, martxoaren 3ko memoria, terrorismoaren biktimen monumentua, Judimendi...).

* (Etenaldi txikia egin, aipatu dituen premiak edota erreparazioaz, errekupeazioaz eta memoriaz esandakoak laburbiltzen joateko, eta, irten baldin badira, ideia zehatzak jasotzeko).

- Elkarrizketan ateratako guztiaren ondoren, zuen ustez zein eginkizun/ahots eduki behar duzue indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakumeok, hizpide izan ditugun erreparazio- eta errekupeazio-gaietan?